

SARROIAK EUSKAL HERRIAN

Iosu Etxezarraga Ortuondo



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA

sarrera ►►

SAROIAK EUSKAL HERRIAN

Iosu Etxezarraga Ortuondo



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Patrimonio Cultural

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

aurkibidea ►►

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:
I.a. 2018ko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:
Iosu Etxezarraga Ortuondo
Berarenak dira argazkiak eta irudiak,
beste batenak direla zehaztu denean izan ezik

Itzulpena:
LUMA, Hizkuntza Zerbitzuak

Maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Sarrera	» 5
Baina, zer da sarroia?	» 6
Nolakoak dira sarroiak?	» 7
Saroiien jatorri ezezaguna	» 20
Saroiien erabilera eta onuren bilakaera	» 22
Sarroia kultura paisaia gisa	» 25
Ondare hau gozatzeko jarduerak	» 29
• Alonsotegi: bost mendeko basogintza kortetan zehar	» 29
• Jaizkibel: labarretako artegiak kostaldeko saroietan	» 35
• Araba eta Gipuzkoako Partzuergoaren lurretako sarroiak: zuraren eta egurraren ustiapenetik artzainen finkamenduetara	» 42
Bibliografia eta erreferentziak	» 46

Sarrera

Aisiarako espazio ludikoa da egun mendia herritar gehienek kasuan. Bertara jo ohi du jendeak, asteburuetan batez ere, gure herri eta hirietako asfaltotik ihesi, lan kon-tuak ahanzteko eta giro naturalean «deskonektatzeko». Halarik ere, ekoizpen-espazioa, lehengaiak eskaintzen zituen eremua eta gizakiaren emanaren arrastoak nonahi ageri zituen ingurunea izana da oraintsu arte mendia. Giza jendeak antzina baso eta goi larreetan bideratzen zuen jardueraren eragina azaletik baizik ez zen paisaian sumatzen, hutsaren hurrengo baitzen ia-ia azken ehun urte honetako goi tentsioko lerroen eta komu-nikazio-bideen luzatze lanen eta basogintza modernoaren ondorioen aldean. Ingurune horren menditsuan eta malkartsuan, egungo gure jardueren eragina nabarmenagoa da inolaz ere ingurune naturalean, baina ezin esan genezake horren harira mendian behiala bideratu ziren ustiatze metodoek mendi-espazio haiek berak eraldatu ez zituztenik, hein batean bederen. Izan ere, gure aurrekoen bizitzeko eta lan egiteko moduei buruzko informazio ezin aberatsagoa gorde dute luzaroan gure mendi-inguruneek, egiazko kultu-ra-paisaia baita eskaintzen diguten errealitatea.

Mendi-espazioa okupatzeko modu haietako bat izan zen saroiak. Zera esan genezake hartaz labur-labur, Antzinako Erregimenaren garaian zabaldu zela bereziki mendia antolatze sistema hori Euskal Herrian ez ezik hemendik kanpoko beste lurralde batzuetan ere. Izugarri ugaltu ziren saroiak egungo gure Autonomia Erkidegoko lurretan, era askotako aukerak eskaintzen baitzieten haien baliagarritasunak eta moldagarritasunak orduko euskal gizarteari. Funtsean, mendiko baliabideetarako sarrera antolatze era egokia eskaintzen zion saroiak orduko gizarteari, eta erruz zabaldu ziren horrelakoak Iberiar Penintsulako Kantaurialdean eta Mendebaldeko Pirinioetan.

Hitz gutxitan esateko, herri lurretan eremu jakin bat (biribila eskuarki) bakartzeko modua da, oro har, saroiak, eta beharreko ezaugarri juridiko berezietan hornitzen zuten

horretarako (eremu horren erabilera berezia gauzatu ahal izateko). Kasu batzuetan, arras desberdina zen, inguruko lurretakoen aldean, saroiaren barnean bideratzen zen jarduera edo ustiapen ekonomikoa. Gauzak daudenean daudela, argi eta garbi esan dezakegu saroiak dela, hain zuzen ere, herri lurren barnean azienda, baso eta laborantza lurren ustiapenari begira mugatu ziren eremuen lehendabiziko adibidea.

Gure mendiak zirkuluz bete dituzten lursail bitxi horiei buruz ariko zaizue, beraz, honako liburu hau. Ondare elementu hori horren ugari ageri arren, ahanzturaren lurraldera baztertu ditu gure gizarteak, ia betikoz, haren izana eta, batez ere, haren historia. Alabaina, saroiak izan zen kasu askotan egun arte iraun duten baserri askoren, euskal nortasunaren funtsezko osagarria eta gure iruditeria kolektiboaren ezinbesteko erreferentzia den base-riaren, ernamuina eta sorburua. Zer izango zen euskal kultura baserriaren erreferentziarik gabe? Ikusiko dugun bezala, abeltzaintzak eta basogintzak eskaintzen digute saroiak sortu eta zabaldu ziren testuingurua, eta, ez ote dira artzainak eta artaldeak harat-honata gure etnografiaren beste funtsezko osagarrietako bat? Areago, ez ote da azkenaldi honetan gure herrietara Eguberriaren iragarle jaisten den ikazkin baten irudia guztiz ospetsu bihurtu? Ez ote zen burdingintza, Erdi Aroan eta Aro Berrian, Euskal Herria osatzen duten lurraldeen motor nagusietako bat izan? Euskal kulturaren zati garrantzitsu bat biltzen da saroiaren histo-riarekin horren hertsiki lotuak diren galdera horien guztien ingurura.

Agertzen hasi zirenetik egun arte, saroiak eduki dituzten ezaugarrien eta historian barrera bizi izan duten bilakaeraren gaineko informazio zehatza jasoko du irakurleak orrialde hauetan. Halatan, saroiaren berezko osagarri buruzko datu zehatzak bezala, haien bidezko arkeologia eta etnografia ondarearen eta, batez ere, historian barrera, helburu zituzten jarduerak aldatu heinean, bizi izaniko bilakaeraren gaineko informazio zabaldua topatuko dugu liburu honetan.

Baina, zer da sarroia?

Zera da sarroia, herri lurretan, mendi guneeetan gehien-gehienetan, mugaturiko eremu edo lursail zirkular berezia; haren erdian, zentroan, harri bat ageri da lurrean, beraren inguruan ziri moduan tinkaturiko beste harri txikiago batzuk berme dituela finkatua. Harrizko blokeek zehazten dute batzuetan haren kanpoaldeko ingurua edo perimetrea, baina zuhaitzetan gurutze eta ikoroski itxuraz eginiko marken arabera izaten da hori beste batzuetan. Izan ere, etnografoen arreta bereganatu du aspaldidanik sarroien zirkulu itxura bitxia mugatzeko modu bereziak, hau da, gizakiak eskuz, artisau lanean, bideraturiko elementuak paraturik. Euskal herriaren berezko kultura-mintzabideen erakusgarri ditugu zedarri horiek, lursailaren erdiko ardatza zehazteko paratzen zirenak bereziki (*haustarriak* edo *haustarritzak*, eta *kortarriak* esaten zitzaizen, besteak beste, gure hizkuntzan); izan ere, ugari ageri dira haietako askotan, identifikagarri gisa, grabatuak, ebaikiak eta epigrafiak.

Halaz ere, beteko zuen funtzioa izan zen, inolaz ere, sarroien nortasun ikur nagusia, hartan beteko zen jarduera nagusiaren arabera garatu ziren haren ezaugarri fisikoak, haien inguruan egiazko fenomenologia bat itxuratuz. Edukia gordetzen du formak, eta aintzat hartu zituen gizartearen beharrei egokiro erantzuteko sortu ziren, hain zuzen ere, lursail berezi haiek. Halatan, denboran barrena zerbitzatu zituen komunitateek bizi izaniko aldaketen arabera izan da, era berean, sarroien bilakaera.

Halatan, jabeari edo erabiltzaileari inguruko lurretan garatu ezin dituen hainbat eskubide eta pribilegio eskaintzen dizkion eremua edo espazioa da sarroia. Hau da, sarroien jabeak edo erabiltzaileak bestela, inguruko lurretan, debekaturik dituen jarduerak bidera ditzake bertan. Ikusiko dugun bezala, abeltzainen jardunean bilatu beharra dago sarroien jatorria; izan ere, sarroia erabiltzeko eskubidearen jabe zenak bazuen abere-taldea hartan gerizatzeko eskubidea, haren jabea bailitzan, eta bestela gertatzen zitzaizen eskubide haren jabe ez zirenei, etxera jo behar izaten baitzuten mendian behera babes bila iluntzen hasi orduko. Funtsean, onura zekarkien lursail haiek erabiltzaileei eta haien gaineko dokumentu ugari gorde dira horrexegatik: guregana iritsi diren dokumentu-lekukotza gehientsuenen jatorrian ditugu lursail berezi haien erabilera ez zuzenak, eremu berezi haien jabetzaren eta haiek erabili ahal izateko eskubideen gaineko eztabaidak.



Larrebilgo sarroiko haustarria edo kortarria (Araba eta Gipuzkoako Partzuergoa), latindar gurutze patatu batez seinalatua.

Bestalde, bereziki azpimarratzeko moduko aberastasun ez materiala ere eskaintzen digute sarroiek, interes handiko erritu-agerraldien lekuko izan baitziren, haien helburua guztiz ekonomiaren arlokoa bazen ere. Bereziki aipa dezagun, adibidez, haustarriaren edo erdiko zedarriaren azpian suaren hondakinak, hautsak edo errautsak, eta teila bat pausatze-ko ohitura, XV. mende erditsutik aurrera testigantzak utzi dizkigun tradizioa. Erritu horren eraginez deituko zitzaion *haustarria* edo *haustarritza* sarroien erdiko zedarriari.

Hizkuntzaren ikuspegitik, hainbat izen jaso dira ondare elementu honekin loturik. Euskaraz, ezagunenak dira *saroi* edo *sarobe* (Gipuzkoako Beterri aldean bereziki) eta *korta* edo *gorta* (Gipuzkoako gainerako lurretan, Araban eta Bizkaian), eta *-olha* atzizkiarekin lotu izan da Zuberoan. Gaztelaniaz eman zaizkion izenei dagokienez, sel izena dugu agian zabalduena (XIII. mendekoak dira izen horren aurreneko testigantzak) eta *bustaliza* eta *cubilar* izenak ere ageri zaizkigu lehenago hainbat erromantzetan idatziriko dokumentu batzuetan.

Nolakoak dira saroiak?

Ageri duten oinplano zirkularra edo sasi-zirkularra dugu saroiaren aurreneko nortasun ezaugarria. Oinplano hori sinpleturik ageri zaigu zenbaitetan, poligono erregular bihurtua alegia (zirkulua beharrean oktagonoa, adibidez). Halatan, Erdi Aroaren bukaeratik aurrera behinik behin, inguru edo perimetro biribil batek mugatzen edo itxuratu zuen saroiaren ere-

mua. Beraien barnean eta kanpoan bideratu izan ziren jarduera desberdinen arteko berezitasunen arabera nabarmendu dira betiere saroiak, inguruko lurrek ez bezalako landaretza ageri dutenez. Hala eta guztiz ere, oraingoz ezin jakin dugu saroiaren jatorrizko forma biribilaren edo itxura zirkular hori historian egin duten bilakaeraren ondorioetako bat den.



Zeanuriko korta edo saroi batzuen ikuspegia (ortofotografia eta lursailen banaketa planoak batera bideraturik).

IX. mendekoak dira saroi edo korten gaineko aurreneko erreferentzia ezagunak, eta Huesca, Kantabria eta Nafarroako adibideen berri ematen dute. Geroagokoak, XII. mende erditsukoak, dira egungo Euskadiko Autonomia Erkidegoko kasuen gaineko lehen albisteak. Gipuzkoako Beterriko saroiak ditugu dokumentu horretan aipaturiko guztiak (Orio-Igeldo-Lasarte, Altza-Urumeako Zilegiak edo Mendizilegiak, Aralar). Hala eta guztiz ere, XV. mende hasiera arteraino ez da saroi formari eta mugatzen dituzten elementuei buruzko erreferentziarik ageri. Halatan, ezin dugu oraingoz Goi Erdi Aroko garai urrun haietan *cubilar* eta *bustaliza* zirelakoak Behe Erdi Aroan aipatzen diren saroi ezaugarri bereberkoak ziren ala ez guztiz zehaztu eta baieztatu.

1418an ekin zien Aguraingo hiriak Gebarako Jaunak Entzia, Urbia eta Altzaniako mendietan bere jabetzat zituen saroi mugarrak eraiste lanei, eta ordukoa da, hain zuzen ere, lursail berezi haiek mugatzeko moduei buruzko albiste zaharrena. Hainbat modutan, ez beti bat, markaturiko saroiak topatu zituzten hiriko agintariek mendi haietan; izan ere, erdiko zedarria eta zentro hartatik hedatzen zen barruti zirkularren alde bat inguratzen zuten bazter-mugarriak topatu zituzten kasu batzuetan, bai eta, eremuan finkaturiko harri haiez gainera, beste elementu mota batzuk ere:

«E non fallando otro mojon cortaron tres pies de ayas que estaban en derredor del dicho mojon e en cada pie de estas hayas sendas figuras de cruçes que dixeron que heran puestos por testigos del dicho mojon».



Saibi mendiko korta bateko kortarria edo haustarria eta erreferentziako harriak, Dima eta Mañaria arteko mugan (Bizkaia).

Hau da, erdiko eta perimetroko harrien (itxura biribila ematen zioten mugarri haiek saroiari) gaineko lehen aipamenak topatu ditugun dokumentu berean azaldu zaizkigu lekuko gisa markaturiko zuhaitzei buruzko erreferentziak. Saroiak mugatzeko bitariko modu huraxe bera baliatuko zen Aro Modernoan ere, 1764an Diman, korta batzuen jabetzaren gainean, elizatearen eta Valdecarzanako markesaren artean izan zen auzi baten araberrako agiriek erakusten diguten bezala. Dokumentazio historikoan, honela esaten zaio, espainieraz, enborretan marka horiek bideratzeari: «apanalar árboles».

Lursailaren funtsezko atala da, inolaz ere, erdiko zedarria, hartatik abiatuta itxuratu baitzen inguruko perimetroa eta hartzen zuen eremua, hau da, korta edo saroi



Indusketa lanak Goro-sabel izenez identifikaturiko haustarriaren inguruetan, Araba eta Gipuzkoako Partzuergoan. Harri batzuk suma daitezke haren oinean, haustarriari behar bezain sendo eusteko paratuak.

bera. Erdiko zedarria, hau da, haustarria edo kortarria bakarrik ager zitekeen, edo ziri moduan eusten zioten harri txikiago batzuen ondoan. Lekukotasun idatzien arabera, beraien kontra erradio moduan eta puntu kardinalen norabidean orientaturik paraturiko lau harri txikiagok eusten zioten kortarri edo haustarriari. Salbuespena delako aipatu beharra dago bereziki Elgoibarko Lizundiagoitiako kortaren kasua, ezin konta ahala harri txiki agertu baitziren kortarriaren inguruan, biribilean paratuak, orain berri bideraturiko indusketa lan batzuetan.

Haustarri edo kortarriari eusteko, oro har bi modu bideratu zirela berretsi digute in situ bideraturiko indusketa arkeologikoei: zimentazio ximpleak, harria lurrean zuzenean finkaturik, eta erdiko zedarriari eusten zioten beste harri txikiago batzuk paraturik. Nolanahi ere, XV. mende erdirako guztiz errotua zen haustarri edo kortarriaren azpian erritu-elementuak uzteko edo gordetzeko tradizioa, Legazpiko agiri batetik atera dugun aipamen honek adierazten duen bezala:



Atxukoaldai saroiko haustarriaren goialdeko ikuspegia (Araba eta Gipuzkoako Partzuergoa).

«E que los dichos seles e cada uno d'ellos sean medidos desde la foguera qu'es dicho austerraça, en derredor, tanto quanto alcançare a las quatro partes, segun la dicha medida».

Ondoko kapituluetan ikusiko dugun bezala, ezin handiagoa izan zen hasiera-hasierako garaietatik saroien garrantzia, abeltzainek mendiko larreei egiazko probetxua aterako bazioten. Horrenbestez lortzen zuten kanpoko herri edo jurisdikzioetako jabeek berenazienda gaua eurenak edo euren herri edo eskualdeetakoak ez ziren lurretan gaua emateko aukera. Saroia baliatzeko eskubidea ez zutenek azienda hartu eta etxera edo sorterrira itzuli beharra zuten horretarako. Beraz, norberaren etxeko ukilu edo kortaren luzapen modukoa zen sarroia, eta erabiltzaileak sarroia baliatzeko zuen eskubidearen sinbolo genituzke, errituari jarraiki, erdiko zedarriaren azpian gordetzen ziren su hondakinak, etxeko suaren irudiko errautsak, eta, batzuetan, teila puskak.



Gorostarbe izeneko saroiko haustarritza, Urnietan.

Haustarria finkatu ondoren ekiten zieten perimetroaren markatze lanei. Horretarako, zirkuluak edukiko zuen erradioaren luzera zehaztu behar izaten zuten aurrenik. Ez dakigu Erdi Aroan eta Aro Modernoan nola egiten zuten hori, baina XVIII. mendean baliatzen zuten metodoaren deskribapen aski jakingarriak iritsi zaizkigu zorionez. Adibide egokia dugu 1765ean Dimako Larraluzegoiko kortan bideratu zuten neurketaren



Larraluzegoitiako kortaren aireko argazkia (Dima).

deskripzioa; Juan de Zubia, Eskoriatzako peritu lur-neurtzaileak hartu zuen lanen ardura. Gainaldean gurutzea ageri zuen kortarrira hurbildu eta «kitsas orratz» bat, hau da, marinen konpas edo iparrorratz bat, pausatu zuen seinale haren gainean, puntu hartatik le-
rroak lau puntu kardinalen norabidean luzatu ahal izateko. Zurezko hagak edota listariak erabiliko zituzten haren laguntzaileek beharreko neurketak egiteko.

Arestian adierazi dugun bezala, saroiak ez dira guztiak neurri berekoak, eta haien hedadura ere ez zen sortzailearen nahierakoa. Zentroaren eta kanpoaldeko ertzaren arteko distantziaren luzera zehazteko, neurri estandar xamarrek erabiltzen ziren; hona

hemen baliatzen ziren unitateak: gorabila eta braza edo gizabetea, erdarazko *estado* delakoa. Zirkunferentziaren erradioa neurtzeko, bestalde, pertika, hainbat braza hartzen zituen kana edo haga luzea, zen neurri erabiliena. Saroi batek, adibidez, 12 gorabil eduki zitzakeen, hau da, 60 pertika. Aldi berean, saroi haien erradioak 84 braza zituen eta, beraz, gorabil bakoitzak 7 braza edo gizabete. Azkenik, 7 oin neurtzen zituen braza edo gizabete bakoitzak: 1,96 metro gure neurrien arabera. Halatan, 330 metroko diametroa zuten neurri haietako saroiak. Horra zer zioen Gipuzkoako foruak lursail horiek behar zituzten neurri buruz, Miguel de Aramburuk 1696an aurkeztu zuen bildumaren arabera:



Ezkerretik eskuinera: Gongeda de arriba, Gongeda de abajo eta Pilipaondo kortak; 465 metro inguruko diametrokoak dira.

«Del grandor que ha de tener en toda esta Provincia el sel en los montes, y de la manera que se ha de medir:

Para que no aya diferencia en la cantidad de terreno, que ha de ocupar qualesquiera de los seles de montes en toda esta Provincia, ni en la forma de medir sus espacios, conforme al fuero, uso y costumbre de esta Provincia. Ordenamos, y mandamos, que en toda ella aya de tener, y tenga el sel común en el remate, y en la circunferencia setenta y dos goravillas de a siete estados, o brazadas cada goravilla, mediendolo con vn cordel de doze goravillas, tirado dende el mojon como de centro alrededor».

Badakigu neurri hura ez zela beti errespetatu, kontuan harturik, batez ere, 1600. urterako sortuak zirela Gipuzkoako saroi gehienak eta haien neurrien arteko aldeak egun ere nabari ageri zaizkigula. Hala eta guztiz ere, saroiaren tamainarekin eta haiek neurtzeko moduekin zeuden arazoak berri ematen digu testu hark.

Oso maiz gertatu ziren eztabaidak saroiaren neurrien gainean, erreferentziatzeko unitate bakar baten arabera izaki. Eredu baten arabera saroiaren neurrien bitartez bideratu beharrek ziren neurketak, eta harriaren edo zurean irarria edukitzen zuten eredu hura, leku publiko batean. Halaz ere, izenaz saroiaren unitatea berbera bazen ere, ez zen beti herri guztietan bat izaten. Hona hemen nola zehaztu zen aintzat hartu beharreko saroiaren Oñatiko San Migel monasterioak 1433. urtean Legazpin zituen saroiaren.



Armentxako kortaren aireko argazkia, 1995 (Markina-Xemein eta Berriatua); 480 metroko diametrokoa da.

«Los seles de berano cada uno de cada seis goravilles e cada gorabil de cada diez codos, e que cada un codo, desde el primero hasta el postrimero, aya una pulgada, e en fin del dezimo como, en lugar del xemendon nombrado en los dichos contratos, aya una mano, solo la palma de quatro dedos, syn el pulgar. E los seles de ybierno, de cada doze goraviles, cada gorabil de diez codos, cada codo con su pulgada, e el postrimero con su mano de quatro dedos, segund dicho es».

Gatazka eta tirabira haien gaineko dokumentazioak saroiene neurketa sistemen gaineko informazio ezin aberatsagoa eskaintzen digute eta ongi dakigu hari esker oso maiz gertatzen zirela neurketetan okerrak eta nahasteak. Egin diren ikerketei esker, argi eta garbi azal dezakegu 6, 9, 12, 18 eta 24 gorabileko, hau da, 82, 123, 164, 246 eta 329 metroko, erradioak zituzten saroiak itxuratu zirela egungo Euskadiko Autonomia Erkidegoko lurretan.



Matxiagorta Suso (ezkerrean) eta luso (eskuinean, soilduta) Diman; 260 eta 230 metroko diametroa dute hurrenez hurren.

Izen desberdinak jasotzen zituzten saroiak tamainaren arabera, ongi bereizteko, eta bitariko sistema batez arautzen ziren, hau da, saroiak txikiak ala nagusiak edo handiak ziren gogoan harturik. Aziendaren gobernuan urtaroeke zuten garrantzia hartzen zen bereziki kontuan horretan, neguko saroiak baitziren nagusiak eta udakoak txikiak. Zenbaitetan, aziendaren gobernu zikloko une jakin batzuekin lotzen ziren, itxura guztien arabera, neguko saroiak. Gisa horietakoak izango ziren Oiartzunen 1509an aipatu ziren *beyardi-saroeak*, behi erdi edo erditu berriak eramaten ziren saroiak hain xuxen. Horiez gainera, Aro Modernoaren bukaeran zatiak edo frakzioak aipatuz hasi ziren saroi batzuk besteetatik bereizten: baziren, beraz, *kortaerdiak* edo saroi erdiak, *kortalau-*

renak edo saroi laurdenak, eta abar. Saroi askotako jarduera nagusia ikazkintza bihurtu zen garaian hasiko ziren saroiak tamaina osoaren edo zatien arabera bereizten eta kontuan hartzen, eta saroiaren ustipenari zegokionez, urtaroen araberrako berezitasunak ez ziren garrantzitsuak.

Haustarria edo kortarria ezarri, saroiaren perimetroa bazterretako zuhaitzetan eta mugarrietan bideraturiko marken edo seinaleen bitartez mugatu, eta horra saroi, egina. Hala eta guztiz ere, arestian adierazi dugun bezala, oso ohikoak izaten ziren haien inguruko eztabaidak, erabiltzaileek askotan zilegi zituzten lurren mugetatik kanpo ere jarduten zutelako, edo herri lurrak edota besteren lurrak inbaditzen zituztelako. Horre-



Urbiako mendebaldeko ertzean ageri diren bi haustarri, Araba eta Gipuzkoako Partzuergoko eta Oñatiko lurren artean, Laskaolatzako saroikoak seguruenik.

«los dichos vezinos de la dicha vezindad de Uribarry e otros qualesquier vezinos de la dicha tierra e señorio de Oñate han usado e acostunbrado cortar e llevar quoaalquier o quoaalquier arboles en el dicha sel para las dichas provisyones neçesarias para fazer las dichas cabañas, e para mantenimiento de los dichos ganados, e para fazer fuego o fuegos, llena e otros quoaalquier probisyones».



Abandonaturiko korta baten ikuspegia, Harrizuri edo Artzubiko sarioian (Araba eta Gipuzkoako Partzuergoa).



Etxola bateko hormen hondakinen ikuspegian, Iguriano de Suso sarioian (Zeanuri, Bizkaia).

Badakigu, beraz, aziendaren gobernurako saroietan harriz eta zurez eginko etxolak eraikitzen zirela eta azienda biltzeko eta babesteko itxiturak eta beste instalazio batzuk ere bideratzen zituztela. Garaiak garai, Gorbeia, Aralar edo Aizkorriko egungo saroiak ez ziren orduko haietatik hainbestean bereiziko, eraikin haien izaera galkorra zela-eta, saroi zaharrenetakoeetatik hondakinak baizik iritsi ez zaizkigun arren.



Etxola baten ikuspegia Gorostarbeko saroiari (Urnieta).



Gorostarbeko etxola zolatu zen lauzadura (Urnieta).



Apoetako harkaitzetako finkamendua (Albeiz, Asparrena).



Bertako hareharria egitura-elementuen berme gisa baliatuz jasoriko eraikin xumea, Apoetan, animalia eta pertsonen aterperako.



Ipar haizetik babesteko aterpea, hareharrizko haitzaren arrimuan egina. Ezkueko saroia (Pasaia).



Oinplano zirkularreko artegia, perimetroan lurrez egindako eraztun baten arabera itxuratua.

Eremuan azienda zaindariei halako babeslekua eskaintzen zieten gorabehera naturalak baliatu ziren zenbaitetan etxolak eta aterpeak eraikitzeko. Halatan, haitzen kontra edo haitzetan bermaturik eraikitzen ziren etxolak, estalpeak eta tegiak, eta eraikin xume haien bitartez goxatu edo egiten zuten abeltzainek bizimodu gogor hura.

Ikus daitekeen moduan, oso eraikin xumeak dira guztiak, eta haietatik tumuluak eta belarretatik goraturiko tontorrak baizik ez dira egun sumatzen.

Aldatuz joan zen historian barrena sarrietan bideratu ziren erabilerak, aldian aldiko behar eta premietara egokitzeko. Kortetako batzuk arian-arian indartu eta sendotu eta, denboraren emanean, Euskal Herriko mendien historia baldintzatuko zuen jarduera berri batera lerratu ziren. Euskal burdinoletan energia hidraulikoaren erabilera



Ikaztobi edo txondor baten ikuspegi orokorra, Iguriano de Suso kortan (Zeanuri, Bizkaian).



Pago motzak, hau da, ikatza ekoizteko aproposak diren adarrak lortu ahal izateko moztuak eta manipulatutak, Iguriano edo Egiriñao aldean (Zeanuri, Bizkaia).



Ikaztobi batean eginiko ebakiaren xehetasuna: buztinezko zorua ikus daiteke oinaldean, beroak gorrituriko lur zerrenda ondoren eta, haren gainean, ikatz-lur geruza oparoa.

garatu eta bazter guztietara zabaldu zelarik, ikatzaren eskariak ere izugarri egin zuen gora eta, horrenbestez, abeltzaintzarekin batera hasi zen basogintza ere saroieta jardunean aintzat hartzen, kasu ez gutxitan aurrekoa guztiz baztertzeraino. Jarduera berriaren poderioz, bestelako erabilera eman zitzaion saroiaren eremuari, saroieta arrasto sakona utzi zuen erabilera. Ikaztobiak eta txondorrak ditugu –ezin bestela izan– ikazkintzarako baliatu ziren saroieta elementu aipagarrienak. Mazelan ageri ohi diren zelaigune txikiak aukeratzen ziren ikaztobia prestatzeko, inguruko zuhaitzetako egurrez itxuraturiko txondorra bertan erre ondoren lorturiko ikatz karga behar tokira garraiatu ahal izateko.

Txondorren hondakinek eraturiko tontorrek eta ikatz ugariak lurtean eragin dituen orban beltzakkek salatzen digute egun antzinako ikaztobien presentzia. Erruz ageri dira oro har Euskal Herriko mendietan eta landare-ikatzaren ekoizpena bideratu zen saroieta ere topatzen ditugu.



Burgoa baserria 1960an, izen bereko kortan eraikia, Ondarroa eta Mutriku artean (Ojanguren Funtseko argazkia, AGG.GAO).

Ikazkintza bideratu zen saroiaren berezko osagarria zen, halaber, zuhaitz modorren, hau da, zuhaitz moztuen presentzia. Zuhaitz hostozabalak izaten ziren, pagoak, haritzak eta gaztainondoak eskuarki, eta gidatu egiten ziren garapenean, forma jakin batzuk lortzeko eta goratasun jakin batean adar mota zehatz baten haziera errazteko. Basogintza mota hura guztiz egokitua zen Antzinako Erregimeneko ekonomia moldeetara, eta ezaugarri jakin batzuk zituen eta eskari jakin bati erantzuten zion lehengaia ekoizten zen haren bitartez. Aro Modernoko eta Aro Garaikidea, hasierako basogintzaren eraginez, gure mendiak hein handian hustu baziren ere, lursail zirkular hauei loturiko baso txikiekin topo egiten dugu egun ere han eta hemen.


Azkenik, beste erabilera batera bideratu ziren Erdi Aroko eta Aro Modernoko saroi haietako batzuk. Erdi Aroaren bukaeratik beretik ezagunak diren prozesuetako bat dugu, hain zuzen ere, korta edo saroiaren kolonizazioa. Halatan, lehenagoko korta eta saroiaren sortu ziren Euskal Herriko baserri eta oinetxe asko, eta jatorrizko lursailaren formari eutsi zioten bizileku berri haiek ez gutxitan, barruko jarduna laborantza eta abeltzaintzaren beharretara egokitzeko beharreko aldaketak eginaz batera. Horrexegatik bereizten dira egun ere lursail horietako askotan bizigunea, hau da, etxea, haren inguruan laborantza lurrak eta belardiak, eta baso bat, gaurko egunean arbola koniferoak nagusi. 3,8 eta 4,5 hektarea bitarteko lursail batek oinarri egokia eskaintzen du baserriko laborantza eta abeltzaintza beharrei itxuraz erantzuteko.

XVI. mende hasierakoak ditugu saroiaren gertaturiko aldaketa hark zekartzan ondorioen deskribapen zaharrenak, eta Berriatua eta Mutriku kasuak dituzte aipagai. Hona hemen aipaturiko etxeak: Burgoa, Urkiagabaso, Kaltzakorta, Gartu, Arantzadi, Leorreten, Iturrino, Ergitiz, Egiguren, Lukerregi, Burgaña eta Anakabe. 1523an leku horietako mugarriak zertan ziren ikustera joan zirenek (BFAH, GORTAZAR 2470/003) bertatik bertara frogatu zuten bila zebiltzan kortarriak eta mugarriak ortu, galsoro edo gaztainadien barruan zeudela.

Saroien jatorri ezezaguna

Noiz sortu ziren saroiak edo kortak? Horra halakoei heltzen diegun aldiro egin dugun galdera. Haien jatorria argitzen saiatu dira gai honetaz arduratu diren autoreak, baina oraingoz ezin izan diote egin dugun galderari garbi erantzun. Izan ere, Goi Erdi Aroan kokatzen dute aditu zahurrenek saroien agertze data.

Antropologo, etnografo eta hizkuntzalarien artean erro sakonak egin dituen tradizio baten arabera, antzinako garaietan egokitu beharko litzateke saroien jatorria, jentil-baratzekin eta gainerako monumentu megalitikoekin lotu beharreko praktikekin erlazionatuz. Antza dute hileta monumentu horiek eta saroiak (oinplano zirkularrekoak,



Arrola Mayor (ezkerrean) eta Arrola Menor (eskuinean) deituriko kortak eta Marueleza edo Arrola kastroa (Mendata eta Nabarniz).

lurrean finkaturiko harriek itxuraturiko perimetroa eta hauts edo errauts depositua be-
raien arabera eremuaren erdian edo zentroan), agerikoa da hori, eta bi fenomenoek
arteko kultura lotura nabarmendu dute horrenbestez. Gainera, erreparoeekin hartuak
diren arren, Erromako Behe Inperioko eta inperioren ondoko garaietara gindera-
tzakete Gipuzkoako Urnietako Mendabio eta Gorostarbeko saraien haustarrien azpitik
jasoriko ikatza hondakinetan karbono 14 bitartez bideraturiko datazioek.

Bestalde, gogoan ere hartu zen hasieran saroiak protohistoriako megalitoetatik
hurbil, baina sekula ez haien barnean, egokitu zirelako teoria. Hala izatera, bereziki indar-
tuko litzateke saroiak eta megalitoak aldi bereko errealitateak zirelako hipotesia. Halaz
ere, arkeologia lanek aurrera egin neurrian jakin dugu kasu batzuetan saroiak haustarria
megalito baten perimetroko harria edo ortostatoa zela. Horixe dugu Pikoeta Ondarre
eta Ondarre III historiaurreko hileta monumentuko kasua (Aralar, Gipuzkoa). Gainera,
Burdin Aroko Marueleza edo Arrola herrigunearen espazio berbera okupatu zuela ageri
du egun Bizkaiko Mendata eta Nabarniz arteko Arrola Menor izeneko kortak. Halatan,
kontu handiz ibili behar dugu beti saroi edo korta baten horrenbesteko antzinatasunaz
hitz egiterakoan, gogoan edukirik inolaz ere ezin dela Euskal Herrian milatik gora izan
diren saroiak modu orokorrean hitz egin.

Gainera, erromatarren garaikotzat jo genituen datazio batzuk gehiago doitzeko eta
zehazteko aukera eskaini digute arkeologia ikerketetan egoniko aurrerapenak. Gipuzkoako
Urnietako Gorosabel saroiak artzain finkamenduan bideraturako zundaketa batzuetan ja-
sotako giza jardueren aztarnen artean (zeramikazko ontzi pusak batez ere) ez da kasu
bakar batean ere Behe Erdi Aroko baino antzinagokoa denik. Hala eta guztiz ere, konpa-
razio gisa balio beza honek, erruz agertu dira erromatarren garaiko eta lehenagoko ontzi
hondakinak "Kristau Aroaren" hasierakoak izanagatik saroi ezagunekin, itxuraz behinik be-
hin, inolako loturarik ez duten abeltzain finkamendu batzuetan, hala nola Argarbin (Aralar,
Gipuzkoa), edota Oltza eta Urbiako hainbat gunetan (Gipuzkoa) han eta hemen identifi-
katu diren etxoletan. Halatan, Euskal Herriko saroiak orain arte bideratu diren ikerketen
arabera, ezin dugu saroiak jatorria Erdi Aroko baino lehenagoko garaietan kokatu, kontuan
harturik, gainera, gai honen inguruko ikerketa lanak hasi baizik ez direla egin.

Bestalde, eskuartearen ditugun datuen arabera, IX. mendekoak dira lursail zirkular
hauei buruzko dokumentu aipamen zaharrenak, Pirinio mendien mendebaldekoak hain
zuzen ere, eta X. eta XII. mende bitartekoak Nafarroa eta Gipuzkoaren kasuan. *Cubilar*,
bustaliza eta *pardina* zirelako buruz mintzo dira erdaraz testigantza idatzi horietan, hau
da, abeltzaintzarekin lotu beharreko hitzak dira aipatzen diren guztiak, saroi, korta, ola,
etxola eta tegien erreferentzia egiten dutenak. Une hartan, hain zuzen ere, berealdiko
garrantzia izango zuen abeltzaintzak Euskal Herriko ekonomian eta behi azienda jabe
handiek interesa ageriko zuten bereziki instalazio mota horietarako sarbide eta eskubi-
dearen jabe egiteko.

Alabaina, oraindik ez dakigu une hartako erdarazko *bustaliza* haiek egungo saroi
edo korten ezaugarri bereberak ziren, Behe Erdi Arotik aurrera edukiko zuten itxura
bereberak ziren, hau da, biribilak eta mugarriz itxiak ote ziren, haien jabeek edo erabil-
tzaileek eskubide bereziak zituzten ala ez, eta abar. Orduko eta ondoko saroiak molde
bertsukoak izango zirelako hipotesiarekin bat datoz ikertzaile gehienak, baina ezin ditugu
oraingoz beste hipotesiak bazterrean utzi. Zera da, batez ere, argitu beharra dugun pun-
tua, saroiak ondoko garaietan bereizgarri edukiko zituzten osagai guzti-guztiekin sortu
ote ziren edo, bestela, bereizgarri horiek denboraren emanean agertu ote ziren. Autore
batzuek bereziki nabarmentzen duten bezala, bat dator oro har zuzenbidea Pirinioetako
mendiguneetan eta, beraz, euskal mendietan ere, eta kasu guztietan mugatzen zaie azen-
da-talde arrotzei bertako jurisdikzioetarako sarrera. Mendiaren ustiapenaren antolamen-
du mota hura indarrean zegoela berresten digute, itxuraz, Goi Erdi Aroko lekukotza
idatzi batzuek. Halatan, oso aukera egokia eskainiko zuen testuinguru juridiko hark saroi
edo korten sorrerarako, traba eta eragozpen haiek gainditzeko; izan ere, arestian adie-
razi dugun bezala, saroiak baliatzeko eskubidea zuenak horrenbestez saihestuko baitzuen
azienda eguzki eguzki larrean bazkatzen edukitzeko debekua

Nolanahi ere, saroi batzuen erroak antzina-antzinako denboretan finkatuak eta,
beraz, XI. mendea baino lehenagokoak diren arren, korta edo saroi asko sortu ziren Behe
Erdi Aroan eta Aro modernoan. Biziki interesgarria dugu, esan dugunaren erakusgarri,
Urumeako Mendizilegien esparruan lursail haiek XII. eta XIV. mendeen bitartean anitzu
ziren prozesua. Adibide izan bitez, era berean, Gartztea Ramirez Berrezarreak 1141. ur-
tean Iruñeko Katedralari eman zizkion saroiak, gogoan edukirik erlijio erakunde berbera
1516an beste hamabi gehiagoren jabea zela. Era berean, saroi berriak ageri dira Uru-
meako Mendizilegien XVIII. mendeko planoetan.

Dagoeneko esana den bezala, abeltzaintzarekin loturik sortu ziren inolaz ere sa-
roiak, eta izaera horrek bereizten ditu hain zuzen horiek, egiturari eta maila juridikoan,
beste lursail pribatu edota beste dermio eta usetatik, hau da herri lurretatik eta toki ad-
ministrazioaren aldetik basogintzan aintzat hartzen ziren beste antolamendu eta lur-ere-
mu motetatik. Hala eta guztiz ere, itsasoko beharretarako ontzizigintzaren eta oletako
burdingintzaren eskaria asetzeko basogintza ere azkartu behar izan zen eta horrenbestez
luzatu zen saroiaren aroa. Mendi espazio berriak egoki bereizteko modu guztiz eraginkorra
eskaintzen zuten saroiak, eta iraun ez ezik zabaldu ere egin ziren izaera horri esker.

Halatan, Euskal Herriko saroiaren sorreraren inguruko kontu ilunak hein batean argitu
ditugun arren, ongi kontuan hartu beharra dago oraindik ere badagoela horren gainean zer
esana, eta ez gutxi. Erantzun berrien bila abiatzeko bide egokia dela erakutsi du Arkeologiak.
Halarik ere, ba ote genuke gizakiak eta azizak historiaurreko garaietan egun arte okupatu
zituzten espazioetan mendia antolatzeke era hori bideratu zen unea zehazteko modurik?
Horra hor ikertzaileek aurre egin beharreko desafioa, ez nolanaikoa.

Saroien erabilera eta onuren bilakaera

Luzea izan da saroiaren bizitza eta, horrelakoetan gertatzen den bezala, guztiz jakin behar izan du une bakoitzeko egoera eta baldintzetara moldatzen eta premiei erantzuten. Dagoeneko adierazi dugun bezala, gizakiak ondare elementu «a priori» horren arkaikoen aurrean erakutsi duen malgutasunari esker iraun ahal izan dute elementu horiek horren ugari gure egunetara arteraino. Ehunka zirkuluk iraun dute katastroetan eta paisaian, eta gutxienez duela 900 urtekoak dira haietako batzuk.

Ongi gogoan eduki beharra dago premia baten aurreko erantzun gisa garatuko zela, inolaz ere, saroi bezalako ekonomia eta lurralde entitate. Halatan, mendia egokiera jakin batean antolatzeke sortu zituzten saroiak eta aldian aldiko baldintza sozioekonomiko eta politikoen arabera izan zen haien ondoko bilakaera.

Hasieran, abeltzaintza izan zen korta edo saroietan bideratu zen jarduera nagusia, eta pisu handia eduki zuten haren bilakaeran ekonomia arlo hark bizi izan zituen aldaketek. Deskribaturik ageri diren aurreneko dokumentuetan, Aragoi, Nafarroa eta Gaztelako elizaren agente-instituzio handien eskuetara igaroak zirela edo igarotzen ari zirela ikusten dugu. Zein izango ote zen zenobio haiek Penintsulako iparraldeko Kantaurialdean zeuden lurren jabetzaren alde zuketuen interesa? Gipuzkoako haranetan kanpoko azienda sartzeko debekuak galarazi egingo zien beraien behi-talde eta artaldeei lurralde hartako larreetarako sarrera, huraxe izango zen beharbada arrazoia. Halatan, traba hura gainditzeko aukera ezin egokiagoa emango zien barruan jabe ziren lur-eremu zabalen eta kostaldeko larre eta basoen artean han eta hemen lursail berezi horien jabe izateak. Izan ere, garai haietan herri lurrak, zillegiak, ziren eskuarki mendiak, eta haietara sarrera zuten tokietako agintarien ardura izango ziren seguruenik haien erabilera eta kudeaketa, beren gobernu organo errudimentarioen bidez.

Nolanahi ere, Behe Erdi Aroak aurrera egin ahalean apalduz joan zen era berean erlijio erakunde handi haiek, hala nola Leireko monasterioak, Orreagako ospitaleak edota San Joanen ordenako Zizurko enkomiendak, saroiak ordura arte bezala erabiltzeko zuten interesa. Egoera hartan, azkena eman zioten tokian tokiko abeltzaintzaren zabalkundeak eta oletako industriak basoen ustiapenaren alde bideratu zuten presioak Goi Erdi Aroan elizako agintariak bultzatu zuten dinamika hari. Beste horrenbestekoa ikusten dugu, adibidez, Ziortzako Kolegiataren kasuan: kortak abandonatu xamarrek edukiak zituen arren, haien aurreko politika aldatu zuten Behe Erdi Aroko urteetan. Kalkulu batzuen arabera, XV. eta XIX. mendeen bitartean 58 baserri eraiki ziren erlijio erakunde hark jabetzan zeuzkan kortetan, eta kontserbatu egin dira, gainera, haietako 45en zesioa arautu zuten

kontratuak: 1400. eta 1600. urteen bitartean izenpetu ziren eskritura haietako 24. Gogoan eduki dezagun 1523an baserri bana zutela Berriatuko korta gehienek. Beste hainbestekoa gertatzen zen Euskal Herriko beste alde batzuetan. Orioko kontzejuak 1550ean erosi zizkion Zarauzko jaunari Luserbe eta Munioetako saroiak (XII. mendetik Iruñeko Katedralaren jabetza izanak zirenak) eta baserri bana eraiki zuen haietan: 1562an aurrenekoan eta 1625ean bigarrenean. 1571n saldu zituen Orreagako ospitaleak Oiartzunen zituen saroiak, bertako kontzejuari saldu hain zuzen ere. Halatan, argi eta garbi ondoriozta genezake datu hauetatik bertako interesak nagusitzen hasi zirela orduan kanpokoan aldean eta begien bistakoa da, bestalde, saroi ustiapenean guztiz hasi zirela kontuan hartzen orduan mendien kolonizazioarekin eta erregaien ekoizpenarekin loturiko helburuak.

XIII. mendean sortu ziren hasierako egoera aldatzeko baldintzak. XIV. mende bukaerarako, agerikoa da ola hidraulikoen ase ezina aldaketa sakonak eragiten ari zela saroi edo *sarobeen* erabileran. Lea-Artibai eta Busturialdeko eskualdeetan zituen kortak Arbatzegi, Munitibar, Gerrikaitz eta Ziortzako biztanleek eta ola-langileek okupatuak zizuten salatu zuten 1388an Ziortzako Kolegiatak, eta Bizkaiko jaurrenriko alkateek ontzat hartu zituzten froga gisa aurkeztu zituen eskriturak. Hona hemen zer dioen, hitzez hitz, auzi horretako lehenengo epaiak:

Paresçio el honrrado e discreto baron don Pedro abbad de la abbadia de Sancta Maria de Çenaurriça e [...] dixo que la dicha abbadia a algunos selles los nombres de los quales dixo que estavan escriptos en el dicho libro en una letra antigua. [...] Otrosi por abasteçer sus ferrerías e por que los dichos selles por antiguedat de tiempo e talas que feso la dicha abbadia para sus nesçessidades e por levanta(miento) otras accidencias que se teme que querran atentar ocupar algunos de los tales vienes.

Tirabira eta eztabaidatan 10 urte eman ondoren, eskubidea onartu zitzaion azkenean Kolegiatari:

Algunas personas con codiçia desordenada queriendose enriqueçer de los montes e vyenes de la dicha abbadia e dellos con poderyo esforçandose de las leyes e prebyllejos nuevos e otrosy por abasteçer sus ferrerías de carbon hes tentada la dicha abbadya e ellos en su nonbre delia de muchas maneras de pleytos e de contyendas espeçialmente de los dichos sennores de las dichas ferrerías e conçe-jo y pueblos ante dichos de las dichas anteiglesias.


Olen jabeak aldi berean saroiaren jabeak ere bazirela frogatu zuten ezin konta ahala kasuren berri eskaintzen digu Aro Modernoko dokumentazioak. Horien adibide dugu Antonio Zacarias de Otañes, Aldanondoko burdinolaren jabearen kasua. Eztabaida ugariaren protagonista izan zen Otañes 1756 eta 1796 bitartean, Alonsotegiko korta batzuk zirela eta, hona hemen: Kortiola, Koskorra, Portiola, Albisazarra eta Errigorta, Zamaia, Gasterriaga eta Gongeda de Abajo.

Euskal Herrian saroiak ustiatu ziren eremuaren hegoaldean ere topatu ditugu ikazkintzarako ziharduten saroiaren ustiapenaren erreferentziak. Halatan, 1510ean, 92.000 karga ikatz ekoiztea negoziatu zuten Altxaniako mendietako partzuerrek Araba eta Gipuzkoako Partzuegoarekin, eta Iramendi, Gorosabel, Uzamagoitia, Arranarribetia, Azpilagarro eta Aikonabaso saroiak aipatu ziren testuinguru hartan.

Oiartzunen, XVI. mendeko lehen hamarkadan, jabe ziren saroiaren kanpoko mugak zabaldu zituztelako salaketa egin zuten haraneko ola-langileen kontra, herri lurrak guztien onaren eta kontzejuko errenten kaltetan okupatu zituztela argudiatuz. Batzuek adierazi zuten bezala, Juan eta Mechis de Olaitz, izen bereko etxe eta olaren jabeek beren oinetxearen saroiak haustarria lurretik atera eta lekuz aldatzeko agindu zioten Sancho de Arbelaitz delakoari, gorago ezarri eta, ordutik aurrera, Kapirioegia izeneko basoa ere saroiaren barnean gera zedin, *porque había en él monte crecido*, (haren barnean mendia hazia baitzen), dokumentuak dioten bezala. Hau da, saroiaren jatorrizko eremuaren barruko zuhaitzia hustua zelarik, ondoko basoaren alde batez jabetu nahi izan zuten, zur eskas ez zelako.

XV. mende hasieran ekin zioten saroiaren kolonizazioari, hau da, haien barnean habitat edo bizileku egonkorrek bideratzeari, eta ordura arte ohikoak ez ziren erabilerak hasi ziren haietan ezagutzen. Arestian adierazi dugun bezala, orduan hasiko ziren saroiak bertan egokituko ziren partikularrei saltzen, errentan uzten eta zesioan ematen. Lehendabizikoz egiaztatu zen laborantza erabilera saroiaren barnean eta horrenbestez sortu ziren baserri asko eta asko. Orain arte ezagun diren kasu zaharrenak izaki, gogora ditzagun Erdi Aroan Orioko hiribilduaren jurisdikzioaren pean zeuden etxe batzuk, Euskal Herri atlantikoan aipatu ziren *bustaliza* zaharrenetan finkaturik ageri baitituzte erroak. Horra Errezabal, Saria eta Aganduru etxeak. Guztiz gogoan hartzekoa da, era berean, Segurako hiribilduak eta Oñatiko andreak Oñatiko San Migel monasterioak Legazpiko haranean zituen 17 saroiaren erabilera arautzeko izenpeturiko akordioan espresuki adierazi izatea saroi haietan baserriak eta kolonoak finkatzeko aukera, etorkizuneko biztanleek bete beharko zituzketen baldintzen gaineko klausulak eta guzti.

Hala eta guztiz ere, saroiaren ustiapenean bideratu zen aldaketa horrek ez digu zertan gaizki-ulerturik ekarri. Abeltzaintzari loturik iraun zuten saroi askok, eta kasu batzuetan batera bideratu zituzten aziendaren hazkuntza lanak eta basogintza. Nolanahi ere, Aro Modernoan aldaketa ugari biziko zituen abeltzaintzak Euskal Herrian. Aurreko



Artegien hondakinak Salurrateko saroiak hartuko zuen eremuaren barruan, Gorbeia mendiaren oinetan (Zeanuri, Bizkaia).

garaietan kanpoko azienda taldeak tokian tokiko larreetan eguzki eguzki bazkatzeko agindua guztiz bete beharrekoa izan zen arren, badirudi XVI. mendetik aurrera araudi errealistago bat hasi zela nagusitzen, azterlan honetan aintzat hartu dugun lurraldearen ekialdean behinik behin. Abere kopurua emendatu egin zen Euskal Herri atlantikoan eta, horren ondorioz, beren aziendak besteren jurisdikzioan sartzen saiatu ziren partikular batzuk. 1696an, aldameneko herrietako aziendak gauaz beren lurretan igarotzeko aukera zabaldu zuten Azkoitiko ordenantzek, beste herriek ere halaxe jokatzeko bazuten. 1726 eta 1728 bitartean iritsi ziren aurreneko aldiz Amezketako aziendak Oiartzungo eta Jaizkibel aldeko mendietara bazkatzera. Azkenik, bertako aziendak lurralde osoan nonahi bazkatzeko askatasuna aldarrikatu zuten 1800. urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiek Azkoitian eginiko bilkuran. Halaz ere, arau hura ez zen leku guztietan berdin aplikatu.

Bestalde, Bizkaiko Foruaren kontrako zerbait izanagatik ere, XVI. mendetik aurrera Gipuzkoa eta Bizkaiko azienaren hara eta hona ibiltzea maiz xamar gertatzen zen zerbait izanik ere, XIX. mendean Jaurerriko mendietara igarotzen zen ardi-aziendaren kopurua hain zen kontuan hartzekoa non artalde haiei gaua igarotzeko eskubiderik ez ematea eta artzainek eraikitzen zituzten etxolak eraitea erabaki baitzuten Bizkaiko Batzar Nagusiek 1814an eginiko bilkuran. 1823an, larre garaia eguzki orduetara murrizteko arauak hartu ziren oraindik ere Bizkaian, azienda-jabe gipuzkoarren iruzurrei aurre egitearren. Debatzaturik zegoen, halaber, herri lurretan etxolak eraikitzea. Luzarago iraun zuten gatazkek,



Antzinako Erregimeneko abeltzaintzaren gaineko legeriaren eta Aro Garaikidearen hasierako jarduera ekonomiko berriaren arteko talkaren gertaleku ezin argiagoa dugu Gorbeia mendialdea.

Gorbeia aldeko eremu zeanuritarrean esate baterako. Arazo hau zehatz-mehatz aztertu ez dugun arren, garbi dago artaldean sarrera haiek oso garrantzitsuak zirela eta pixkana-pixkana zabaltzen ari zela barnealdeko lurren eta kostaldeko larreen arteko transhumantzia edo artaldean lekualdaketa-joera. Artzainak mendi haietan arian-arian bideratu zuten kolonizazio batez mintzo dira garai hartako dokumentuak, etxolak eta artegiak eraikitzen zituzten, eta tokiko agintariak ezin zuten horrelakorik onartu.

XVIII. mende bukaeran eta XIX. mende hasieran, euskal gizarte nekazariko gero eta jende gehiagok hartu zuen abeltzaintza bizimodutzat eta horrenbestez emendatu zen artaldean kopurua eta areagotu haien joan-etorriak, haien sostengua ziurtatzearen. Zera erakusten digu, adibidez, arkeologiak, Aro Modernoan azientzaren hazkuntza bigarren mailako ekonomia arlotzat zuten edo, behinik behin, jarduera horrek arrasto materialik uzten ez zuen sarrietan (hortxe ditugu, esate baterako, Iramendi eta Gorosabel, Araba eta Gipuzkoako Partzuergoan, eta Iguriano de Suso, Zeanurin) etxolak eta artegiak eraiki eta egokitu zirela XVIII. mendetik aurrera.

Gaia oraindik ere behar bezain sakon aztertu ez bada ere, badirudi eskualde batzuetan sarriek abeltzaintzarako zuten balio praktikoa galdu zela denboran zehar. Hala-



Artaldea Betsaideko lepoan (Arrasate, Aramaio) 1958an, behiala izen bereko sarria zabaldu zen gunean. Indalecio Ojanguren Funtseko argazkia (Gipuzkoako Foru Aldundia).

tan, Oltza eta Urbiako aurkintzetan gutxienez XV. mende bukaeratik sarri bana egokitu ziren arren, artzaintzarekin loturiko arkitektura-elementuz beterik ageri zaizkigu egun gune horiek, behialako sarriek okupatu zituzten eremuen hedadura gaituz. Urrietako Gorostarke sarriak, artegiak eta etxolak ageri dira barnealdeko ordeka batean, eta gehiago topatzen ditugu haren kanpoaldean, Mendizilegiakoko herri lurretan. Aitzitik, dokumentazioari esker badakigu Gorbeia aldean korten ugaritasuna arazotzat hartu izen zela eta eraitsi eta desegin egin zirela instalazio mota haietako ez gutxi. Halatan, uste izatekoa da abeltzaintza bestela arautu zela eskualde bakoitzeko moduen arabera eta, horrenbestez, bestelakoak ere izan zirela modu haien arabeko paisaiak.

Beste jabetza pribatu batzuetatik eta, batez ere, inguruan zeuzkan herri lurren jurisdikzioetik guztiz bereizten zuten bestelako errealitate juridiko batek oinarritua izaki, sarriaren jatorrizko nortasunaren euskarri nagusietako baten galera probokatu zuten, oro har, kolonizazioa bultzatzeko edo ikazkintzarako ekoizpena ziurtatzeko helburuaz bideratu ziren saleroste eta errentan jartzean ugaltzeak, alde batetik, eta mendia abeltzaintzarako gune gisa hartzen zuten Erdi Aroko ereduaren desegituratze prozesuak, bestetik. Noizbait izan zirenen fosil zirkularrak izango ziren aurrerantzean kortak edo sarriak, itxurari baizik ez baitzioten eutsi.

Saroiak kultura paisaia gisa

Gizakia ingurune naturalarekin elkarreraginean hasi orduko sortzen da kultura paisaia; handiagoa edo txikiagoa izan daiteke gizakiaren inpaktua, berariaz eragin duen alaketaren mailaren arabera askotan. Halatan, zibilizazio historikoek utzitako arrastoa ezin uler liteke modu berean urtegi bat eraiki den lekuan eta artalde bati edaten eman zaion iturriaren inguruan. Kasu bietan, ingurune fisikoa eraldatzeko borondatea azaldu delako edo jarduera ekonomiko baten emaitza gertatu delako, itxuratu da kultura paisaia, bereiz harturik ulertu ezin diren bi alderdi banaezinek osatua: ingurune fisiko eta naturalak jardun du, alde batetik, eta gizakiaren arrastoa ageri da, bestetik. Kontzeptu honen erakusgarri ezin hobea dugu saroiak, abstraktu xamarra nahi bada teoriarik, baina adibide praktikoen bitartez argi eta garbi konprenituko dena.

Lehenik eta behin, saroi gehien-gehienak landa eta mendi esparruetan agertu izanak bereziki pentsaraziko liguke ondare-elementu mota hori izaeraz naturala dela, haren berezkoa izadiaren osagaia izatea dela. Hala eta guztiz ere, aurreko lerroak irakurri ondoren, erraz asko ohartuko zen irakurlea ia mila urteko ustiapen biziago edo leunago baten ondoren, gizakiak nabarmen eragingo zuela mendi gunen horien itxuraren bilakae-ran. Saroiaren barnealdea ez da horretan salbuespena.

Ikusi dugun bezala, euskal gizarteak lursail horiei eman dien helburua eta ustiatu dituen modua ez dira beti bat izan historian eta ez dira aldatu gabe geratu.

- Erdi Aroko abeltzain jarduera: hasierako garai hartan ingurune hura nola ustiatzen zen jakiteko datu askorik ez dugun arren, badakigu behi-azienda eta zerri-azienda zirela Erdi Aroaren bukaeran eta Aro Modernoaren hasieran mendira eramaten ziren azienda mota nagusiak. Izatez, azienda haien hazkuntza lanak guztiz bateragarriak ziren basogintza eta, bereziki, egurgintzarekin eta, berez, pagoen eta haritzen haziak, pagatxak eta ezkurak, ziren, adibidez, uda bukaeran eta udazken hasieran mendira gizentzeko eramaten ziren zerrien lehen hazkurria. Halaz ere, abeltzaintzaren moduetara egokitu behar izan zuten basogintza ere Euskal Herrian, animalien ekin harraparitik babestu behar baitziren zuhaitzak, ikazkintza eta eraikuntzarako onez baliatuko zen basoa lortuko bazen. Bestalde, garai haietan azientarako saroiak eta aterpeak ez ziren eraikin sendoegiak izango, eta dokumentazio idatziari esker badakigu hesiak hesola soilez eginak eta etxolak zurezko eraikin oso xumeak zirela.




Antzinako etxola baten oinarrien presentzia salatzen dugun tontorra edo erliebea, egun Egiriñaoko inguruetan guztiz mimetizatua (Zeanuri, Bizkaia).

- Basogintza: Izugarri handia izan da zurak eta egurrak, erruz ageri diren baliabide ezin baliagarriago horiek, izan duten garrantzia, Euskal Herriko alde atlantikoan batez ere. Industriaurreko ekonomiarako oinarritzko industriak, hala nola burdingintza, ontzizgintza eta eraikuntza, hornitzeko balio izan zuten euskal basoek edo oihanek. Halatan, guztiz gizatiarturik, mugaturik eta administrazioak araturik ageri zaigu dokumentuetan Aro Modernoko basoa. Zuraren eta egurraren aprobetxamendu egokienerako teknikak garatu ziren, zuhaitzen haziera gidatzeko, eta oso itxura bereziak eta desberdinak hartuko zituzten zuhaitzek, haien bitartez lortu nahi ziren helburuen arabera: tantaia, motzak edo modorroak eta txarak.

Euskal olen gose aseeginaren poderioz soilduz joan ziren arian-arian gure basoak eta mendiak txondor eta ikaztobiz betetzen. Ingurune naturalaren ahi-

tze prozesua geratu beharra zen erremediorik gabe eta hainbat neurri hartu ziren mendien basoberritzeari eta zuraren erabilera iraunkorrangoari begira, baina ez zuten ondorio ikusgarririk ekarri eta, XIX. menderako, larre zabalaz estaliak, etxolak eta artegiak han eta hemen, eta abeltzaintza bideratzeko modu berri batez populatuak ageri ziren mendiak.

- Artzaintza: errealitatea izango zen, seguruenik, ardi-aziendaren zabalkundea Erdi Aroaren bukaeratik, eta XVII. mendetik aurrera guztiz sendotu zela esan liteke. Basoak soilduz joan ziren heinean zabaldu zen artzaintza mendi bazterretan, artaldeek larre oparoak behar baitituzte garatuko badira, eta gero eta espazio zabalagoak geratzen ari ziren zuhaitzik gabe Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako mendietan. Ardiak eta artzainak animalia harraparien eta eguraldi gaiztoen ekinetik babesteko, korta edo saroi berriak egituratu ziren, artegiak eta etxolak barruan. Harriz eraikiko ziren askotan, gero eta gehiagotan. Denboraren emanean, galduz joan zen saroiaren jatorrizko berezitasuna eta, beraz, leku batzuetan gero eta eraikin gehiago jaso ziren abeltzaintzarako, saroiari jatorriz zegokion lursailaren mugak gaindituz. Egun, artzainek oraindik ere erabiltzen dituzten espazioetan guztiz galdu da saroiaren nozioa, espazio juridiko berezi gisa ulertua, eta paisaiak ez du hasierako lursail haren nondik norakoak bereizten uzten, bat eta bera baitira haren barruan eta kanpoan garatzen den jarduera. Saroiak mugatzen zituzten harriak kontserbatu diren kasuetan baizik ez da ohartzen bisitaria halako berezitasuna zuen eremu batean dagoela.
- Nekazaritza ustiapenak. Erabilera berri batera moldatu zituzten saroi batzuk. Gizakiak ingurunean eragin zuen inpaktua oso garrantzitsua izan zen batzuetan, erabilera berriari egokiro erantzuteko beharrezkoa baitzen etxe bat eta beste eraikin osagarri batzuk jasotzea. Habitat edo bizilekuaren inguruan, baso-soildu egiten zen alde bat, eta fruitu-arbolak aldatzen ziren hartan, bai eta laboreak, landare lekadunak eta barazkiak egiten ere. Haietaz gainera, abereak bazkatzeko larreak zaindu, bideak ireki eta esparruak hesi egiten ziren.
- Basogintza industrialak: XIX. mende bukaeran eta, batez ere, XX. mendean zehar, sarrera egin zitzairen kanpoko zuhaitz espezieei orduan soildurik ageri ziren mendietan, epe laburrean eskaintzen zuten etekina kontuan harturik batez ere. Halatan, pinuz eta eukaliptoz basoberritu zituzten korta edo saroi izenez ezagunak ziren lursail zirkular haietako batzuk, eta egun ere horixe da haietako gehienetan bideratzen den jarduera. Paradoxa bada ere, basogintza industrialak elementu antropiko ia guztien aurrean ustiatze teknika oldarkorrek bideratzen dituen arren, errazago bereizten eta identifikatzen dira egun kortak eta saroiak mendien edo harenen ikuspegi orokorrean hazkunde



Artzainak gazta egiten, Degurixako etxola edo borda baten atarian (Eskoriatza, Gipuzkoa). Juan San Martinen argazkia, Gipuzkoako Foru Aldundia.



Mendi paisaiaren ikuspegi orokorra Arrabako hegoaldeko ertzetik (Zeanuri, Bizkaia). Lekanda mendiko gaina ageri da ezkerrean eta nabarmen suma daiteke, bertako mazela batean, hosto gorrixkako zuhaitzi bat, obalo itxurakoa (behe-erdialdean).




Mendi aterpea Egiriñaon (Zeanuri, Bizkaia).

bizkorreko espezieen bitartez bideraturiko basoberritzeei esker, saroiaren barnealdean eta kanpoaldean ustiapen mota desberdinak bideratu diren aldetik.

- Mendizaletasuna eta landa turismoa: XX. mendeko aurreneko urteetan hasi ziren mendiak okupazio mota berri baten helburu bihurtzen. Pertsona talde ugariago nahiz bakanagoen bisitaldiak hasi ziren jasotzen gain entzutetsuenak: denbora labur batez okupatzen zituzten, naturaren ingurunez gozatzeko (hirietako ingurunearen kontrapuntutzat hartu zen orduan mendia). Azken 120 urte honetan, erromeria jendetsuen eta ez horren zalapartatsuen, pikniken eta, aterpe eraiki berrietan, mendizaleen gau-pasen gertalekua izan da mendia; horrez gainera, markatu eta balizatu egin dira mendi-bideak mendizale eta txangozaleei begira, lasterketak prestatzen dira altzairuzko borondatez hornituriko gizon eta emakumeek parte har dezaten, eta abar. Eta jarduera berri honetako jomuga adierazgarrienetako batzuk ditugu, hain zuzen ere, Enirio-Aralar, Aratz-Aizkorni eta Gorbeia.



San Migel Aingeruaren irudiari ongi etorri egiteko meza jendetsua Igaratzako ermitan (1954). Indalecio Ojanguren Funtseko argazkia (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Euskadiko Autonomia Erkidegoko saroi edo korten banaketa eta dentsitatea azaltzen dituen mapa.

Alabaina, ingurunean jarduera desberdinak bideratu diren arren, bereizkuntza horrek ez ditu funtsean paisaia antagonikoak sorrarazi. Kasu gehienetan, jarduera baten galerak eta haren ordezteak ez du saroiaren jatorrizko arrastoa guztiz galarazi. Halatan, metaketa baten ondorioa izan da horrenbestez sorturiko kultura paisaia, eta ezaugarri horri esker dira korta edo saroi batzuk mendialdeak gizatiartu ditugun moduen bilakaeraren lekuko bikainak.

Gainera, kultura fenomeno hori Euskal Herri hezeko eskualdeetan barrena zabaldu zen eta bereziki bizia izan zen haietako batzuetan. Saroiak sortu ziren batez ere Bidasoa eta Berastegi ibaien arteko lurretan, Aralar eta Aizkorri mendialdeetan, Deba ibarrean eta Oñatin, Lea-Artibai eskualdean eta Busturialdean, Urkiola eta Gorbeia mendialdeen artean eta, azkenik, Nerbioi eta Arratia Ibaizabal ibaiarekin bat egin baino lehenagoko lurren inguruetan goratzen diren mendietan, Alonsotegin eta Arrankudiagan batez ere. Aguraingo lurretan, Entziako mendialdearen oinetan,

identifikatu dira hegoaldeen azaldu diren kortak, eta Susokoa, Aiarako haranean, eta Montellanokoa, Galdames aldean, ditugu mendebaldeen topatu direnak. Egiazko salbuespena dugu azkeneko hori, Meatzaldeko mendietan, Barakaldetik Barbadun ibairaino, ez baita inoizko kortaren presentziarik egiaztatu. Portugaleteko hiriko foruaren klausula baten ondorio bat egon liteke egoera horren jatorrian (kontuan har bedi hiri haren jurisdikziopean egon zela Bilboko Itsasadarren ezker aldeko lurralde bizkaitarraren eremu handiena):

Otrosí mando que ningunt fijosdalgo nin otro ninguno non faga en estos dichos términos de los montes ferreñas nin seles nin pastos nin otra población alguna.

Debeku hura berresteko eskatuko zuen seguruenik kontzejjuak, mendiaren ustiapena beraren interesen araberakoa izan zedin. Kortek kasuan, bereziki saihestu nahiko zituzten herri lurrak abeltzaintza edo basogintza lanei begira pribatizatzeko aukera guztiak oro.

Alonsotegi: bost mendeko basogintza kortetan zehar

Arestian adierazi den bezala, Pagasarri eta Ganekogorta artean, hau da, Nerbioi eta Kadagua ibaien artean luzatzen den mendialdearen bi aldeetan zabaltzen diren lurraldeak ditugu, hain zuzen ere, gure lurraldean aztergai dugun gai honen gainean informazio adierazgarrienetakoa eskaintzen duen eremua. Oso ugari dira hartan tamaina handiko kortak eta, elkarren artean hain gertu ageri direlarik, zirkuluz beteriko mapa eskaintzen digute. *Pinus insignis* espezieko zuhaitzek hartuak dira egun nagusiki, eta nabarmen bereizten dira aldameneko belardi, oihanpe eta bertako zuhaitz espezieen multzo urrietatik.

Egun, saroi haietako batzuetan barrena luzatzen dira gure mendi-bideak, bisitariari haietarako sarrera erosoagoa eginez, haien artetik ahal bezain handirik egin gabe ibil daitezkeelako.

Artiba auzoan hasiko da gure ibilbidea, izen bereko urtegitik hurbil. Leku horretara iristeko, bereziki gomendatzen dugu Alonsotegiko Azordoiaga auzotik (25 m) goratzen den bidea hartzea. BI-636 errepidearen azpitik igaro eta San Joan eliza ezker aldean utzi bezain laster ekingo diogu igoerari, arazorik gabe, El Oro askaldegiranzko norabidean. 5 minuturen buruan, bidegurutze batera iritsi eta ezker aldean hartuko dugu goratzen den bidea, bietan pikoena, zolatu gabe dagoena. Ordu laurdenaren buruan hasiko da patar hura hein batean zelaizten; 10 minutu gehiagoan segituko dugu, metalezko ate batetik igaro eta gero. Une hartan estutzen da mendi-bidea, igoera mallakartu batez, eta Kareatxeta gunera eta Tontorra gainera (441 m) iritsiko gara, gune sigi-sagatsu batzuk eta metalezko ate bat gainditu ondoren. Ordubetik eta 15 minuturen buruan iritsiko gara Tontorra gainera, eta paisaiako aurreneko lursail zirkularrak ikuskatu ahal izango ditugu handik. Haietako batzuk baizik ez daude sumatuak izateko moduan, guztiz nabarmentzen baita haien barruko landaretza berde iluna inguruko beste eremu guztien artetik.



Proposatutako ibilbide zirkularren trazadura. Zirkularra da eta hiru ordu eta laurdeneko iraupena du guztira.



Artiba auzoaren ikuspegia (erdian), Ganekogortaren oinetan. Auzoaren gainaldean ageri dira, ezkerretik eskuinera, Beogorta de Arriba eta Beogorta de Abajo, Peripaondo, Gongeda de Arriba, Gongeda de Abajo, eta begi hutsez ezin suma daitezkeen beste saroi batzuk.

Bideari segitu eta 15 minutuan iritsiko gara Artiba auzoa osatzen duen etxe multzoraino. Jatorriz korta bakar batekoak ziren lursailek osatua da egungo herrigune hori. Mendian gora lasai abiatu eta eremu hura hego-mendebaldetik mendean hartzen duen pinudira iritsiko gara. Haren mugetara iritsi orduko gertatuko gara Peripaondo edo Pilipaondo –horrela esaten diote egun– izeneko kortako eremua zeharkatzeko egokieran.

1531koa da haren aipamen zaharrena; une hartan eskatu zuten Juan de Zubiaurrek eta Antonio de Agirrek mendi haien jabetzaren erdia, Olabarrietako Santo Tomas ellexalde edo elizatearekin (Zeberio) partekatzen ari zirena. Beren azienda leku hartara eramateko asmoa zuten. 1786an, ordea, ikazkintza zen bertako jarduera nagusia, ondoren Antonio Zacarias de Otañes jabe zen burdinoletara garraiatzeko, hain zuzen ere.

Egun ez da saroi honetako abeltzain iraganaren arrastorik bakar bat ere ageri, baina lursaileko sarreratik 70 metrotara, ezkerretik hain zuzen ere, hasieran deigarri gertatu ez zitzaigun ordeka txikia bat ageri da mazelan. Bertaraino jaitsi eta argi eta garbi



Ikatz lantzeko baliatu zen ikaztobia edo txondorra ageri zen ordeka txikia. Garbi ikusten da gune horretan erliebea jarduerara egokitzeko itxuratu zuten ezponda.

egiazatu genuen oinetan geneukan lurra beltza eta landare-ikatzean oso aberatsa zela. Ikaztobi edo txondor-plaza baten aztarnen aurrean geunden inolaz ere, hau da, egurra landare-ikatz bihurtzeko instalazio bat eraiki zen gunean.

Egun, kortaren barruko eremuan pinua nagusi den arren, ongi kontuan eduki beharra dago antzinako urteetan haritzia zabaltzen zela lur hartan. Oso bero-ahalmen handikoa izanik, guztiz aproposa zen haritzaren zura haranez behehitiko lurretako burdinolak erregaiz hornitzeko. Ase ezina izan zen inolaz ere burdingintzarekin loturiko industria, etenik gabea zen haren erregai galdea.

Mendibidean gora 200 metro aurrera egin eta lepo batera iritsiko gara, balsa oraindik utzi gabe; han ageri da, eskuinaldean hain zuzen ere, Pilipaondo kortako erdiko zedarria, hau da, kortarria. Itxura oso modernokoa den arren (hormigoiz egina da), laster asko ohartuko gara lekuko nagusia hareharrizko bloke batean bermatu zela. Ez dakigu garbi kortako ardatz lerro zaharraren osagaia zen ala ez. Nolanahi ere, ehunka urtean jardunean egon den sistema baten erreferentzia denboran hurbilena dugu egungo kortarria.



Peripando edo Pilipaondo kortaren erdialdean ageri diren zedarrien xehetasuna.

Maldan behera segituko dugu gunetik aurrera geure bidean eta, barruan sartu garenetik 15 minutu inguru igaro direnean utziko dugu kortako eremua, Gongeda de Abajo deritzon erantz abiatzeko.

Lursailaren perimetro edo inguruetaraino hurbildu ginenean bezala, korta utzitakoan ere nabaritu dugu nolako aldea dagoen barruko eta kanpoko landarearen artean. Ez da dagoeneko pinurik ikusten eta bakanago ageri dira zuhaitzak, ehun urtetik gorakoak eta bertako baso eta zuhaitzen historiako bilakaeraren lekuko biziak. Pago motzak dira eta bakan ageri dira, han eta hemen, gorosti eta bertako beste espezie batzuen artean, denboraren emanari eta gizakiaren baliakuntza metodoei aurre eginez.

Korta horietatik kanpoko eremu batean bizirik iraun izana... horra, hain zuzen ere, horren bereziak diren eta udalerriko alde honetan maiz xamar ageri diren zuhaitz horien ezaugarri harrigarrietako bat. Gaugerero galdua den baina hain xuxen herri mendi hauetan bizirik iraun ahal izan duen basogintza molde baten oihartzunak dakartziguten fosil modukoak dira inolaz ere. Bestela gertatu da saroi edo korten kasuan: merkaturako lehentasunak denboren joanean aldatu diren bezala iraun dute korten barruan, baina aldatutako zuhaitz espezieak ere aldiro ordezkaturik, zur eta egurraren aprobetxamendurako lanek, eta *pinus radiata*, *insignis* ere deitua, espeziea dugu hartan egun nagusi, azkarrago hazten edo egiten delako. Bestela esanda, basoaren ustiapen lanak dagoeneko bideratzen ez diren espazioan ageri dira zuhaitz zaharrenak, bertakoak, eta hamarkada



Pago motza Pilipaondo eta Gongeda de Abajo korten arteko eremuan.

Gongeda de Abajo saroiko kortarri modernoaren xehetasuna. Aurrekoaren hondakinen gainean finkatuko zuten seguruenik.



Burdin zepak Gongeda de Abajo kortan barrena goratzen den bidean.

gutxi batzuetan moztuak izateko bideraturiko baso berrietan zuhaitz gazteak eta epe laburrean errentagarriak aldatzen dira eskuarki.

Metro gutxi batzuetara, bihurgunearen hasieran barneratuko gara Gongeda de Abajo kortako eremuan. Gongeda de Arriba deritzon kortarekin egiten du muga hego-mendebaldetik, eta Pagobakotxaga izenekoarekin Iparraldetik. Handik aurrera berde ilun kolorea nagusituko da berriro, baina, pinudian sartu aurretik, mazelaren behealdeko lurretara bihurtuko ditugu begiak, eskuinetara hain zuzen ere. Aurreneko pinuen aurretik, 20 bat metrotara, eremu soildua estaltzen duten garoen artean sumatuko dugu bisitatuko dugun kortaren perimetroko bazter-mugarrietako bat.

Bihurgune itxi batetik segituko du bidezidorrak eta, minutu gutxi batzuen buruan, 300 bat metrotara, joko dugu kortaren erdialdeko gunea. Bertan topatuko dugu, espero bezala, erdiko zedarria, kortarria.

Gune horretatik beretik zuzenean hurrengo kortarantz goratzen den mendi-bidea abiatzen bada ere, mazela albo batetik inguratuz segituko dugu guk bide zelaian aurrera, maldan atondu eta berdindu ziren ordeka txiki batzuk ikusi ahal izateko: garai

bateko ikaztobiek eta txondorrek utzitako aztarnen aurrean gaude. Ezkerretara biratuko dugu ondoko bidegurutzean, Gongeda de Arriba kortara zuzenean eramango gaituen bide piko batean gora, hain zuzen ere.

Igoerari ekin baino minutu pare bat geroago erreparatuko diogu zapaltzen ari garen lurrari, «harri» sail bitxi bati arreta berezia eskaintzearen. Zepa beltz edo gris ilunak dira, distiratsuak inondik ere, eta azalean malko itxurako formazioak erakusten dituzte batzuek, eta barruan bits edo burbuilen tankerako zuloak beste batzuek. Industriaren aurreko instalazio batean, *haizeola* edo mendiko ola batean, ekoitzi zituzten. Haizeola hura bidearen eskuinalde osoa bere mendean hartzen duen gunean antolatu zuten eta Kristau Aroko 1200. urte aldera eduki zuten jardunean. Burdinola mota haietan ez zen ibai edo erreketako uraren indarra edo energia hidraulikoa baliatzen eta meatik zuzenean ekoizten zen burdina. Kantaurialdeko euskal lurretako aberastasun handienetakoa izan zen, hain zuzen ere, burdin mea. Gure industria siderurgiko garrantzitsuaren zuzeneko aurrekariak, gure aurrekoek mendian bideratu zituzten ekonomia jardueretako baten lekukoak, ditugu gisa horretako burdinolak.

Gongeda de Abajo eta Gongeda de Arriba korten ertzek bat egiten duten puntua zehazten duen mugarria.



Ez dakigu haizeolaren garaian Gongeda de Abajoko korta jardunean zen ala ez. Hala ez balitz, argi utziko luke horrek korta edo saroiak mendia berrantolatzeko sistema baten arabera eremuak izan zirela, korta ezarri aurretik mendia ustiatzeko beste modu batzuk bideratzen zirela espazio hartan.

Bidean gora 10 minutuz jarraitu ostean gertatuko gara Gongeda de Abajo eta Gongeda de Arribako kortetako lursailen lerro ukitzailiek bat egiten duten lekuan. Porlanezko mugarri berri baten bidez zehaztu da puntu hori; bidearen ertzean topatuko dugu, eskuinaldean.



Lehen planoan, haritz modorroak edo motzak, kortetatik kanpo ageri direnak; bigarren planoan, Gongeda de Abajo eta Pilipaondo kortetako pinu kolore berde ilunen arabera landaretza. Hondoan, Pagasarri mendialdea. Gibelaran korta, goialdean biribildurik eta barnealdean soildurik ageri den lursaila, nabarmentzen da ha.

Bidean gora segituko dugu ondoren leporaino iritsi arte; gune hartan hartuko dugu eskuinaldeko bidea, Zamaia edo Labeja mendiko gainerantz (609 m). Kortako mugak gainditu eta gero –agerikoa izango da hori koniferoen basoa dagoeneko atzean utzi dugula sumatu orduko– zuhaitzak bakanago ageri diren paisaia batera itzuli eta berriro gertatuko gara zurgintzarako modelaturiko haritz zaharren aurrean.

Minutu gutxi barru iritsiko gara Zamaia mendiko gainera, inguruko mendien panoramika ezin zabalagoa eskainiko diguna. Baso paisaia desberdinen ñabardurak preziatu ahal izango ditugu handik, ikuspegi orokorrean oraingoan.

Momentu horretan ekingo diogu jaitsierari, Zamaia eta Kobatxo kortetan barrena. Egun ez dago korta horiek bertatik bertara bereizteko modurik. Inguru haietatik igarotzen denari, ordea, aurre-aurrean agertuko zaio mendia, atzean utzi dugun gainetik iparralderantz goazela, ebakitzen duen meatze-arraildura ikaragarria. XX. mende hasieran ustiatu zuen alde hori «Sociedad Minera de Alonsótegui» delako konpainiak eta txunditurik uzten gaitu egiaz burdin mea erazteko jarduera haren ondorioz eginiko zuloaren sakonerak.



Meatze-zuloaren gaineko behatokirako sarreraren ikuspegia.

Iparralderantz joko dugu puntu hartatik, geroago mendiaren gaineko lerrotik pinudira (Kobatxoko kortaraino) iristeko. 230 bat metro gehiago egin eta maldan behera abiatuko gara ondoren, eskuinaldetik abiatzen den mendi-bidean aurrera. 15 minutu eskas beharko ditugu basoa zeharkatzeko, San Martin ermitara garamatzaten seinaleei jarraiki betiere. Aldanazarra kortaren ertzetik jarraituko dugu ondoren, nekazaritza-ustiategi bat ikusiko dugu han, larreak eta pinudia barne. Mugarri bat topatuko dugu beheraxeago, segitzen ari garen galtzadak etxalde horretarako sarbidearekin egiten duen gunean, hain xuxen. Kortaren kanpoaldeko perimetroa zehazten zuten bazter-mugarrietako bat dugu beharbada.

20 minuturen buruan iritsiko gara Alonsotegi udalerriko gune nagusira. Maldan behera segituko dugu horretarako; San Martin basilizaren ondotik igaro eta alde bat utziko dugu ondoren errepidea, seinaleztaturiko bide batetik zuzenean jaisteko.

Mendian barrena 3 ordu luze egin ondoren, gure mendietako 800 historia-urte igaroarazi dizkiguten bideak korritu ditugu eta urte horietan guztietan sortu den ondarearen hainbat erakusgarriaren aurrean gertatu gara; hor dira guztiak, haietara eroso hurbildu nahi diren guztien zain. Ondare hori ez da askotan begiz horren erraz hautematen, ageriko monumentu askorik eskaintzen ez duelako, baina gure aurrekoen bizimoduaren erakusgarri ederra da inondik ere.



Aldanazarra kortaren perimetroko bazter-mugarria zatekeena.




San Martin ermita. Eraiki zen urtearen berri ematen digu idazkunak: 1909.

Jaizkibel: labarretako artegiak kostaldeko saroietan

Gure historiako hainbat garaitara itzultzeko aukera emango digun bidea proposatuko dugu oraingoan; alabaina, edozein ibilgailu motordun baliatu ahal izango dugu era berean bide hori egiteko. Beste aukera bat litzateke, bisitaldia Talaiako Bidetik, hau da, Hondarribia eta Pasaia Jaizkibel mendian barrena lotzen duen bidetik jotzea. Kasu horretan, komenigarria litzateke igoerari Pasaiatik ekitea, ekialderanzko norabidean hain zuzen ere, eta ibilaldia Hondarribiko mugetan bukatzea. Kontrako norabidean bisitatuko ditugu, horrenbestez, ondoren deskribatuko diren elementuak.

1371. urtean, gatazka giroa zabaldu zen Hondarribiko baina ondoren datorrena Gibelaraneke kortaren deskribapena da eta Iruñeko Katedralaren artean, ezin konpondu zuten auzi bat zela medio. Izan ere, Aralarako San Migel santutegiaren ondasun oparoak kudeatzen zituen orduan Iruñeko Katedralak eta, besteak beste, saroiak ere baziren, dozena batzuk, gutxienez bi mende lehenagotik, erlijio erakunde hark Gipuzkoan zituen jabetzen artean. Ugari zituen artalde eta behi-taldeen bazkaleku gisa erabiltzen ziren batez ere saroi haiek. Euskaraz *maizter* edo *buruzagi* (erdaraz, *mayoral*) izenez ezagunak ziren administrari bitartez, onura, hau da, errenta ateratzen zuen Katedraleko txantreak (elizako agintari bat zen txantrea) azindariaren hazkuntzak sorrarazten zituen irabazietatik. Nafarroako iparraldeko haranetako (Ultzama, Araitz, Sakana, ...) unaiak edo behizainak transhumantzian ibiltzen ziren behi azindariarekin barruko eta kostaldeko lurren artean, eta eremu zabal horretako saroi andana luzea baliatzen zuten, hain zuzen ere, azienta bazkatzeko larreak eguzkiz eguzki baizik ez baliatzeko debekuari, hau da, gaua egin orduko kanpoko artzainek edo unaiak azientak beren tegietara itzultzeko zuten betebeharrari, ixkin egiteko. Jaizkibel mendia ezin zuen bertakoetatik kanpoko beste edozein herritatik inguraturiko inork erabili, bekaizkor jokatzeko baitzuten oso garai hartako kontzejuek mendien aprobetxamenduari lotua zen ezertan ere.

Testuinguru hartan sortu zen, beraz, gatazka hura, Hondarribiko kontzeju berriak abeltzain nafarrek bere jurisdikziopeko saroiak baliatu ahal izatearen kontrako jarrera azaldu zuenean. Jaizkibel mendian sartzen ziren behi kopuru geroz eta handiagoak eta kanpoko azienta taldeak Jaizkibel mendiko larreetan bazkatu ahal izateak bertako biz-



Jaizkibel mendilerroaren gainetik luzatzen den errepidearen trazadura adierazten du mapak, bisitatu beharreko lekuen kokagunea zehaztuz.

tanleei eragiten zizkieten kalte handiak egongo ziren seguruenik debeku-erabaki horren arrazoiaren artean. Erdi Aroaren bukaerarako Iruñeko Katedralak ez zituen bere azientak leku horretara bazkatzera eramaten. Aldiz, mende gutxi batzuk geroago hasi ziren berriz ere aurreko saroi zaharrak urtaro batzuetan bisitariak hartzen. XVIII. mendetik aurrera hasi ziren Gipuzkoa barruko azienta taldeak, artaldeak guztiz gehienak, negua Jaizkibel mendian igarotzen. Gure egunetara arteraino iraun du ia-ia jarduera horrek eta arrasto guztiz interesgarria utzi du, gainera, mendialde guztian.



Hareharrizko azaleratzearen ikuspegia. Geriza eskaintzen du Jaizkibel mendiaren itsasalde honetako lurrak kolpatzen dituzten ekaizen ekinetik babesteko.

Antzinako abeltzainen finkamendu hauetara bisita egitea proposatzen dizuegu, jakinik oraindik ere ikusteko moduan daudela instalazio haien aztarna batzuk. Kontuan harturik Hondarribiko egungo udalerriko mugen barruan dauden saroiak errepide nagusietatik urrun ageri direla, arreta berezia eskainiko diegu Pasaia eta Lezo udalerrietako lurretako batzuei, saroiak zer ziren ezin hobekiago erakusteko aukera ematen digutelako.

Hondarribia eta Pasaia udalerrien arteko mugatik beretik ekingo diogu bisitari. Errepidearen ertzeke zabalguneko batean aparkatuko dugu autoa modu seguruan, Ezkueko saroiaren sartuko garen lekutik 200 bat metrotara hain zuzen ere. Kontu handiz segituko dugu errepidearen ertzetik gora, mendiko gainaren azpiko bihurtunera iritsi arte, eta ezkerretatik abiatzen den bidezidor batean aurrera jaitsiko gara ondoren mendi lepotik 200 metroan, hareharrizko azaleratze handi baten aurre-aurrean gertatu arte.

Harri burkail handia inguratuko dugu lehenik, haren ezkerretatik mendebalderantz jotzen duen bide batetik segituz. Berehala gertatuko gara Jaizkibel mendiaren iparraldeko mazela honen izaera guztiz irekia argiro erakutsiko digun panoramikaren aurrean. Gogoan har ditzagun orain XIV. mendera bitarte Iruñeko Katedraletik behi azienda gidari mendi malda hauetara hurbiltzen ziren abeltzain nafarrak, eguraldiaren ikuspegitik oso etsai izan litekeen eremu hartan izarpea beste gerizarik ez zutenean.



Harpe nagusia, Ezkueko saroiaren.

Eguraldi gaiztoaren eta itsasaldetik zetozen eraso eta oldarretatik babesteko, aterre naturala eskaintzen dio bertako orografiak gaua leku hartan eman behar duenari. Harpe handi bat hedatzen da, hain zuzen ere, hareharrizko azaleratzearen azpian. Gai galkorrez fabrikaturiko etxolaren baten instalaziorako aukera ematen duen eremua, egun, orube hutsa baizik utzi ez duena.

Harkaitzaren ekialdean, orerik gabe pilatu zituzten harri zapalez eraikitako etxola baten hondakinak ikusiko ditugu. Uralitazko teilatua ageri zuen errematean eta, beraz, ez du oso aspaldi abandonatu zutenetik.



Harearrizko azalera-
tzearen babespean
harriz eraikiriko
etxolako sarrera.



Multzoaren mendebaldeko haitz baten kontra itxuraturiko bizigunea, harrizko hormatxo batez sendotua.



Artegi baten aztarnak, multzoaren behealdeko eremu zelaian.



Artzain eraikin baten zokaloa, Ezkueko harkaitzean gora.

Haren pean, beste haitz eta harrien babesean, ageri dira Ezkueko behialako saroi-ko multzoa osatzen zuten beste aterpe eta artegi batzuk.

Saroiak hartzen zuten eremu edo hedadura zehatzaz informazioa emango luketen haustarririk edo mugarririk ez dagoen arren, jatorria gutxien-gutxienez Erdi Aroan izan zuten abeltzain finkamendu baten lekukotasun aparta eskaintzen digute leku horretan ikusten ditugun elementu guztiek.



Mukitarko zelaiaren ikuspegi partziala, iparraldetik hegoaldeko perimetrorantz hego-ekialdeko norabidean ixten duen hareharrizko azaleratzetik. Hondoan, Larrun mendia ageri da, ezkerrean, eta Aiako Harria, eskuinaldean.

Ibilgailura itzuli eta errepidean behera abiatuko gara ondoren, ekialderantz hain zuzen ere. 1.600 metro inguru aurrerago, aparkaleku bat topatuko dugu bidearen ondoan, ezkerrean. Oinez joko dugu ondoren mendi-kaskoaren gainerantz, eta mendia ekialde-mendebalde zeharkatzen duen bidexka topatuko dugu. Hari segituko diogu, Pasaiko norabidean, 360 bat metroan, haitz grabatu handi batekin topo egin arteraino. Bidexka utzi gabe igaroko gara ondoren mendiaren hegoaldera. Mugitzako saroiria iritsiko gara horrenbestez. Egungo Mugitar edo Mukitar toponimoaren jatorrian dago izen hori. 1371ko dokumentu batean aipatu zuten *sarobe* hori; aipamen hari esker badakigu Iruñeko Katedrala eta Murgiako jauna zirela saroi haren jabeakideak (Astigarragan zuten Murgitarrek oinetxea).

Gune soil baterantz garamatza bideak basoan barrena, eta lursaila ekialdetik ixten duen horman irekitako ateka batetik barneratuko gara hartan: larrea zabaltzen da gure aurrean, harrizko bi azaleratzeren arteko ordeka batean. Ezkuen gertatzen zen bezala, non gerizatua eskaintzen duten harpe eta haitzulo txikiak ageri dira han eta hemen itsasorantz zuzentzen den hareharrizko haitz zerranda luze horietan.



Mukitarko harpea.



Iparraldeko hareharrizko azaleratzeko estalpe naturala, arrokan euri-uren hustubiderako pikaturiko ildoak agerian. Suaren ekinaren aztarnak sumatzen dira, halaber, hormaren erdialdean.



Begien bidezko ikuspegia Mugitzako saroitik, hego-mendebaldeko norabidean.

2009 eta 2013 bitartean egin ziren esku hartze arkeologikoetan frogatu zen bezala, Paleolitikoko garaietan hasi zen bazter haietan gizakiaren emana, eta kopuru ikusgarrian iritsi dira gure egunotara gizakiak okupazio-garai haietan harrian landuriko tresnak. Bestalde, milaka urte geroago, K.a. I. mendearen eta K.o. I. mendearen bitartean, berriro ere okupatu zuen gizakiak eremu hura. Garai hartan hasi zen Euskal Herria Inperio erromatarren barnean integratzen.

Aurrekoan bezala, saroi honetan ere ez da mugarririk kontserbatu, eta ez du, gainera, saroiaren berezko morfologia ageri. Hala eta guztiz ere, lur sail berezia dugu herri mendien artean. Haren oinplanoa angeluzuzena da eta aipaturiko hareharrizko azalera-tzeek eta harrizko bi itxiturak, haren barnealdean herrigune bat gorpuztu zen garaiko, hau da, Burdin Aroaren bukaerako garaietara garamatzatenek, eratzen dituzte haren mugak.

Erdi Aroko eta Aro Modernoko abeltzain eremuari dagokionez, babes ezin egokiagoa eskaintzen du iparraldeko fatxadak kontrako eguraldi txarren erasoekin ekinetik gerizatzeko. Harpe batzuk irekitzen dira hareharrizko harkaitzean, gune batzuetan sabai zabal xamarrek eskainiz. Harrian eginiko zulo eta pikatze lanen aztarnak hauteman dira gune horietako batzuetan: euri-urak aterpearen eremutik kanpora bideratzeko egingo zituzten.

Aparkalekura itzuliko gara ondoren, autoa hartu eta ibilbideari segitzeko. Errepi-

dean behera 1.300 bat metro egin eta legarrezko mendi-bide baterako sarbidea topatuko dugu; hartatik jarraituko dugu 320 bat metroan. Ibilgailua zurezko hesi baten ondoan aparkatu eta oinez abiatuko gara hego-mendebalderantz jotzen duen den mazelan goiti. Mitxitxola mendia da (320 m).

Gizakiaren behialako presentzia argien ageri den guneetako bat da eta, ikusiko dugun bezala, guztiz da esanguratsua arrasto hori. Halaz ere, egun ez dago jakiterik zer saroi edo artzain-gunerekin lotu beharko litzatekeen. Eremu hartan, dagoeneko aipatuak ditugun baino saroi gehiago izan ziren, ezagutzen ditugu haien izenak baina galdu egin dira toponimian. Mitxitxolan ageri den saroiaren antzinako izenari egokituko zitzaien agian 1371ko dokumentuetan aipatzen diren honako leku-izen hauetako bat, «Ayanssosi», «Odioloue» edo «Oiondonaga», baina ezin dugu oraingoz lotura geografiko hori zehaztu.

Gaingan ageri den harrizko kororaino igo ondoren, berriro ere frogatu ahal izango dugu mendi horren hegoaldeak aterpe ezin egokiagoa eskaintzen ziola han gaua eman behar zuenari. Halatan, hareharrizko azalera-tzearen ekialdeko muturrera jo eta sabai natural baten aurrean gertatuko gara; haitz handi bat arraildu eta erori ondoren sortu zen harpea. Formazio geologiko horren aurrean, halako erosotasuna eskaintzen duen ordeka topatuko dugu, erliebe egiaz malkartsu batean.



Hareharrizko harkaitza, hego-ekialdean babesa eta habitaterako eremua edo egoteko lekua eskaintzen dituen.

Hurbildu ahala erreparatuko diogu bertako elementu iradokitzaileenetako baten presentziari. Leku hartan ostatatu zirenek idazkunez bete zuten arroka, euren sinesteen berri emanez. *Sukaldea* izena eman zaion aldean gaude dagoeneko.

Aro Modernoko une aurreratu xamar batean, 1728. urtetik aurrera seguruenik, egokitzen gaituzten giza arrastoak topatuko ditugu itxuraz artzainen babesleku garrantzitsuena izan zen gune hartan. Zergatik 1728. urtearen ondoren? Bada urte hartan hasi zirelako Gipuzkoa barruko artzainak beren artaldeak Jaizkibel mendiko larreetara legez eramaten. Erljio eduki kristauko bi monograma ageri dira: IHS (Jesus) eta AM (Ave Maria). Beraren nortasunaren berri gehiago ezagutzen ez dugun pertsona baten sinadura agertzen da, gainera: «F. Zelaia». Proposaturiko kronologia barruko modu eta usadioen araberakoa da, orobat, deskribatu ditugun petroglifo edo harrian eginiko ebaki guztietako grafia. Gurutzea da, bestalde, Sukaldea deitu eremuan hainbatetan ageri den elementua.

Esploraziorako gonbita luzatzen digu aldiro Sukaldea eremuak, iragan kronologia aldetik hurbil baina egungo erosotasunetatik eta, areago, bizipen espiritualen gainean dugun kontzepziotik oso urrun dauden elementu iradokitzaileak agerraraziko baitizkigu haietara luzatuko dugun begirada bakoitzak.



Gurutze itxurako ikurra, hareharrian grabatua.



Mitxitxolako Sukaldea deitu eremuko gune sabaiduna. Haitzaren oinarrian eginiko zuloei errepara diezagun oraingoan (behe-ekerraldean): itxitura baten instalaziorako egingo zituzten seguruenik.



IHS eta AM monogramak, Mitxitxolako labarretako saroiko arrokan grabatuak.



Artzain finkamendu honetako okupatzaileetako bat izango zen seguruenik «F. Zelaia».



Seguruenik borda izango zen eraikin baten hondakinak, Sukaldea deitu eremuaren mendebaldean. Esku hartze arkeologikoan azaleratu ziren.

Mendebalderantz bidean aurrera metro batzuk egiten baditugu, laster asko ohar-tuko gara hareharrizko aterperen eta haren oineko ordekarren kontuan hartzeko luzeraz. Horma, hozka eta zutoinak eta atea egokitzeko zuloak topatu dira hartan orain berri bideratu diren esku hartze arkeologikoetan. Artegiak egiteko bideratuko zituzten seguruenik. Artaldeak babestuko ziren borda-eremu batzuk zehaztu dira, era berean, multzoaren mendebaldeko ertzean. Halatan, artzain saroia izan zen, Aro Modernoan behinik-behin, Mitxitxola gaina, baina ez dakigu Erdi Aroan ere erabiliko zuten, horrelakorik ziurtatuko liguketen erabateko aztarnarik azaldu ez delako. Historiaurreko garaietara garamatzate, aldiz, berreskuratu diren material arkeologiko zaharrenek; aldizka erabiliko zuten ezaugarri hauetako aterpe natural hura populazio ehiztari-biltzaileek.

Horrenbestez bukatzen da Gipuzkoako kostaldeko saroi hauetan proposatu dugun bisita, alde horretako biztanle zaharrenek utzitako arrastoen garaietatik artzainak neguan, artaldeak Aralar eta Aizkorriko mendietatik gidaturik, larre haietara jaisten ziren aro moderno eta garaikideetara eginiko bidaian. Erdi Aroaren bukaeran, ikusi dugun bezala, behiala jokatu zuten paper estrategikoa galdu zuten saroiak Jaizkibel mendiko ekonomian. Hala eta guztiz ere, argi eta garbi erakusten digute adibide horiek mendian ere, zenbaitetan horren etsaia izan daitekeen ingurune horretan ere, finkatzeko gune aproposenak bilatu dituela gizakiak bere jardunari begira eta, hango populatzeak noizbait etengabeak izan zirelako frogarik topatu ez den arren, ongi dokumentatua da aspaldidanik Jaizkibel mendiaren aldiari erabilera, atergabe berritu izan dena.

Araba eta Gipuzkoako Partzuergoaren lurretako saroiak: zuraren eta egurraren ustiapenetik artzainen finkamenduetara

Altzaniako mendiak zur eta egur erreserba guztiz garrantzitsuak izan ziren mende askoan, Aro Garaikidean bertan bideratu zen jarduera nagusia artzaintza izan zen arte. XV. mende hasierakoak dira Araba eta Gipuzkoako Partzuergoaren lurretako saroiaren gaineko lehen berriak, eta haien inguruak zehazteko bideratzen ziren mugarriez eta zuhaitz eta epaitondo markatuz mintzo zaizkigu bidenabar. Badakigu, beraz, herri mendietako basoetan sortu ziren lursail zirkular klasiko haiei buruz ari direla. XVI. mende hasierako agiriei esker hasiko gara sail haietan bideratzen ziren jarduerak ezagutzen. Ikazkintzarako egurraren ekoizpena izan zen, itxura guztien arabera, eremu hartako ustiapen nagusia. Testuinguru horretako saroi batzuk aipatu ziren zehazki, eta haietako batzuetara bisita egitea proposatuko dizuegu ondoren.

Zegamako Otzaurteko mendatetik ekingo diogu Larrebil, Gorosabel eta Iramendiko saroiak bisitatzeko bideari, baina beste sarbide batzuk ere baliagarriak helburu horri begira, Urdalur urtegitik edo, Araia aldetik joz gero, Atabarrateko lepotik, esate baterako. Aurreneko kasuan, 2.600 metroan segituko diogu Otzaurteko ermitatik basoan barneratzen den bideari, bidegurutze batera iritsi arteraino; ezker aldeko bidetik joko dugu ondoren, maldan behera errekararen kotaraino jaitziz. Erreka zeharkatu eta 130 metro inguru egin ondoren hartuko dugu mazela inguratuz goratzen den mendi-bidea. 1.650 bat metro gehiago egingo dugu gero, bidegurutze bakoitzean gorantz doan bidea harturik; gune hartan, norabidea tupustean aldatuz eskuinalderantz jotzen duen bidetik jarraituko dugu eta 900 metro inguru egindakoan biratuko dugu ezkerredera, Iramendiko saroiara igotzeko.

Urdalurko urtegitik abiatu nahi izanez gero, haran hondoan barrena erreka ondolik doan mendi-bideari segituko diogu 4 bat kilometroan, arestian adierazi bezala, mendi-bidea goratzen hasten den bidegurutzerara iritsi arteraino. Aurreko argibideen arabera segituko dugu puntu horretatik aurrera.

Bestalde, Araiaiko herrigunearen iparraldetik abiatzen den mendi-bidea hartuko dugu Atabarrateko lepora iristeko. Bizkor egingo dugu altueran gora eta, bihurgune itxi



Haranaren hondotik bisitatu beharreko azken saroiraino doan bidea. Gutxi gorabehera, bi ordu eta erdiko iraupena du saroiaren ikustaldiak. Joaneko bidea egingo da berriro itzulerakoan.

batzuk igaro eta gero, 2.800 metro inguruko bidea egin eta gero, hasiko gara mendien iparraldeko isurirantz jaisten. 1.300 metro egingo ditugu ondoren sigi-saga iparralderantz, Larrebil aldera hain zuzen ere. Kasu honetan, kontrako norabidean egin genezake bisitaldia.

Iramendikoa izango da deskribatuko dugun lehendabiziko saroi. Bi muinoren arteko lepo zelai batean zabaltzen da, 885 metroko goratasunean. Paisaian gailentzen den larrean nabarmentzen dira, bereziki, borda edo etxola handi bat eta beste eraikin



Iramendiko saroiko erdiko zedarria edo haustarria, behialako korta edo saroiaren hondakinak ageri diren ordekaen iparraldeko ertzean.




Lehen planoan, Iramendiko borda baten hondakinak. Hondoan, Aratz mendiko gaina.



Iramendiko haustarriak ageri dituen ebaki erradialen xehetasuna.

txikiago batzuk, egun ere erabiltzen direnak. Hegoaldeko norabidean jarraitzen badugu, hau da, beste isurialderako jaitsierari ekiten badiogu, lur jotako artegi eta etxola batzuen hondakinak ikusiko ditugu malda pikoan ageri den ordeka txiki batean. Bidean behera goazelarik, zutik dirauen artzain eraikin bat ikusiko dugu ezkerrean, baina hondakin multzoa ageri den eremuak erakarriko gaitu bereiziki. Ordekara iritsi eta harri prismatiko bat ikusiko dugu lurtean finkatua: Iramendiko saroiko haustarriaren aurrean gaude.

Gune hartan hegoalderantz begira gaudela, begiak ezkerrean eraman eta horma bat ikusiko dugu, landaretzak guztiz hartua, eta 10 x 20 metroko esparru bat agertuko zaigu aurrerago, eskuinaldean. Modu ordenatuan pilaturiko harriz eraiki ziren biak, kareoz edo zementuz oratu gabe. Geure ezkerrean abiatu eta horma inguratuz metro batzuk behera egiten baditugu (hegoalderantz), tamainaz horren handia ez den solairu karratu bat itxuratzen duen harri pilarekin egingo dugu topo. Horra Iramendiko garai bateko bordetako bat, XX. mende bukaera arteraino erabili izan zena.



Iramendiko sarioaren aireko ikuspegia 1977an. Eraikin ugariaren hondakinak sumatzen dira; lurreen berdinduak, ikusezin ia-ia, dira egun. Haustarria ageri den lekua adierazten du marka urdinak.

Saroiko haustarritzara itzuli eta 100 bat metro egingo dugu ondoren mendebalderantz zuzenean. Erliebe zelai xamarra gainditu eta eremu zenbaitetan lintzuratsu batera iritsiko gara: iturri baten presentzia salatzen digu inolaz ere. Ezinbesteko baliabidea zen hura artzainak eta artaldeak bizirik eutsiko bazioten. Inguru hartan berean ikusiko dugu belarren gainetik zutitzen den hareharrizko bloke bat, bakarra kasu honetan. Iramendiko saroiko mendebaldeko bazter-mugarria da.

Ezin hobekiago erakusten digu Iramendin ageri den elementu multzoak Erdi Aroko eta Aro Modernoko garaien bitartean saroietan bideratu zen paisaia aldaketa. Saroi berriak sortuko baitziren bazter hartan, han eta hemen, basoetako baliabideak hustu eta artzainen bizimodua jarduera ekonomiko garrantzitsu bihurtu ondoren. Kasu honetan, Iramendiko saroiaren, garai batean bertako jarduera nagusia ikazkintza izan bazen ere, artaldeak eta artzainak finkatu ziren XVIII. mende bukaeratik aurrera edo XIX. mendean barrena. Egun, artzaintzaren gorenaren igaroa den honetan, behor batzuek jo dute gugana, abeltzaintza bazter-jarduera baizik ez den ingurunean.

Hasierako lepora itzuli eta bisitatu zain ditugun saroietarako bidea ekingo diogu berriro. Iristean alde bat utzi dugun mendi-bideari segituko diogu oraingoan mendebaldeko norabidean, aurreneko gaina inguratuz, eta hegoalderantz joko dugu ondoren, mendian barrena 800 bat metro egiteko. Kareharrizko azaleratzeak eta larreak ondozkatzen dira alde honetan. Aurrean sumatzen den bide-ukondora iritsi baino lehen, muino baten oinean, hego-mendebaldean, mugarri prismatiko bat topatuko dugu lurreen finkatua. Hareharriz



Iramendiko saroiko bazter-mugarria zatekeena, haren mendebaldean.

egina da eta «T» itxurako ebakia ageri du gainaldean. Saroiaren kanpoaldeko ertzean gaudela jakinarazten digu inolaz ere. Kanpoaldeko muga adierazten du harriaren azal guztian luzatzen den lerro zuzenak, eta haustarria topatuko dugun norabidearen berri ematen digu, aldiz, haren perpendikularrean abiatzen den marra laburragoak.

Garbi esan dezagun autore batzuek Larrebilgo saroi delako adierazi duten arren, dokumentazioan ez dela horren gainean ezer garbirik azaldu eta Gorosabel izeneko beste saroi batez mintzo direla inguru horietan. Gogoan edukirik Larrebilgo iturria geroxeago ikusiko dugun mugarritik hurbilago dagoela, uste izatekoa da une honetan zapaltzen ari garena ez dela izen horretakoa. Etorkizunean bereizi ahal izango dugu, beharbada, Gorosabel izeneko saroiari buruz ari garen, edo oraingoz ezagun ez dugun beste batez mintzatu beharko genukeen.

Proba egin dezagun. Iparrorratza eskuan (analogikoa, digitala edo gure telefono mugikorreko aplikazioa) abiatuko gara deskribaturiko puntutik hego-mendebaldeko norabidean, eta 170 bat metro egin ostean iritsiko gara saroiko haustarria dagoen lekura. Bloke zilindriko bat da goialdean eta prismatikoa oinarrian, haren zati garrantzitsu bat galdu den arren. Goialdean, Iramendin azaldu zaizkigun izar itxurako ebaki berdinekin egingo dugu topo: puntu kardinalak adierazten dituzte, bai eta, jakin dugun bezala, bazter-mugarriak topatuko ditugun norabideak ere.



Gorostarbeko saroiko haustarriaren ikuspegi zenitala.



Sutondo bateko zolarria eta perimetroko harri zapalak, Gorosabel saroian dagoeneko galdua den artzain borda batean.

Gure inguruan, ehiztari postu batzuez gainera, pagadi bat begiztatu dugu iparraldean eta pinudi bat hegoaldean. Larrearen hegoaldeko ertzerantz abiatu eta zelaigune moduko ordeka txiki bat sumatuko dugu hego-mendebaldeko norabidean, 25 bat metro egin ostean. Behatoki egokia eskaintzen digu inguruez jabetzeko. Bertan egon zen borda zahar baten berri eman digute une hartan oraindik orain bideraturiko miaketa arkeologikoek; XX. mende erditsuko urteetan galdu zen itxuraz.

Leku hartatik alde egin baino lehen, kontrako, hau da, ipar-ekialdeko norabidean abiatuko gara Gorosabelen bisitatu ditugun bi mugarrien arteko muino gorenerantz. Goiko ordekan geldituko gara eta, arreta handiz erreparatuko diogu, ondoren, bertako erliebe bereziari. Lurrean 12 metroko diametroan ageri den irtengune bat da, eraztun itxurakoa eta mendebalde-hego-mendebaldeko aldean irekia. Borda edo artegi mota berezia izango zen, inolaz ere, orain arte ikusi ez bezalakoa. Eraikitzeko, goratasun apaleko perimetroa itxuratu zuten, lurrez, bertako terrenoaren gainean, eta haren gainean bideratu zuten itxitura, hesolez eta adarrez, edo elorritz, osaturiko hesia, animaliak barru hartan edukitzeko. Haren barnean eginiko indusketa lanetan suharri zati batzuk berreskuratu badira ere, ezin zehaztu izan dira haien kronologia eta egitura horrekin zuketan lotura, bazuten. Izaeraz eta monumentaltasunez horren eskasa izaki, eskuarki ikusten ez den elementu bat topatu dugu, nolana ere, saroi honetan.

Azkenik, saroi honetako haustarrira itzuli eta mendi lerroaren gainetik segituko dugu ondoren 620 bat metroan, mendebaldeko norabidean hasieran, eta hegoaldekoan gero. Pagaditik atera eta harri prismatiko bat agertuko zaigu iraleku batean. Mugarri berezia, aurreko bi saroietan ikusi ditugunen tankerarik ez duena (ikus 6. orrialdea). Prisma-tikoa da, esan bezala, eta hareharrian landua, baina ez du goialdean ebakirik ageri. Gurutze latindar handi bat ageri du, ordeka, hegoaldeko aurpegian. Ereku horretako mugarri monumentaletako bat izango da, beharbada, eta haren antzintasuna ere kontuan hartzekoa, seguruenik. Aurreko kasuetan ez bezala, ez dirudi Larrebil edo Larrebarre Biribileko (halaxe dio haren 1418ko aipamen batek) saroi honetan sekula inolako abeltzain finkamendurik izan denik.

Leku hau bistatu ondoren ekingo diogu itzulera bidaiari.

Bibliografia eta erreferentziak

- AGIRRE MAULEON, J., IBÁÑEZ, A. 1996. «El sel de Gorostarbe (Urnietia)». *Arkeoikuska* 1995: 211-214.
- AGIRRE MAULEON, J., FLORES, M., SAN JOSÉ, S. 1997. «El sel de Mendabio (Urnietia)». *Arkeoikuska* 1996: 142-144.
- ALBERDI LONBIDE, X. Y ARTETXE FERNÁNDEZ, O. 2011. *Orioko baserrien gidaliburua. Historia eta paisaia*. Orio: Ayuntamiento de Orio.
- ARAGÓN RUANO, A. 2001. *El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna: aprovechamiento, ordenamiento legal y conflictividad*. Donostia: Sociedad de Ciencias Aranzadi.
- ARAGÓN RUANO, A. 2009. *La ganadería guipuzcoana durante el Antiguo Régimen*. Bilbao: UPV/EHU.
- ARAGÓN RUANO, A. 2015. «Relaciones ganaderas entre Navarra y Guipúzcoa durante la Baja Edad Media y el comienzo de la Edad Moderna». *En la España medieval* 38: 13-35.
- ARENZANA, T. 2010. «Los seles en Errenteria: una primera aproximación». *Bilduma*, 23: 179-214.
- ARIZNABARRETA ZUBERO, A. 1998. «Kortabasoak: lurraren jabetza eta erabilpenak mendialdean (Dima.Bizkaia)». *Zainak*, 17: 33-43.
- DÍAZ DE DURANA, J.R. y FERNÁNDEZ DE LARREA, J.A. 2002. «Economía ganadera y medio ambiente. Guipúzcoa y el Noreste de Navarra en la Baja Edad Media». *Historia Agraria* 27: 43-64.
- FLORES BENGOETXEA, M. 2000. «El sel de Antxista Garaikoa (Urnietia)». *Arkeoikuska* 1999: 146-148.
- GOGEASCOECHEA ARRIEN, A., JUARISTI LINACERO, J., MORO DEORDAL, I. 2009. «Del uso común del monte a la propiedad privada: introducción al estudio de los seles en Bizkaia». *Lurralde* 32: 15-46.
- GOGEASCOECHEA ARRIEN, A., JUARISTI LINACERO, J., MORO DEORDAL, I. «EL proceso histórico de ordenación de los seles en Bizkaia: esandarización de ls superficies y cambios en los usos del suelo». *Lurralde* 33: 37-95.
- GOGEASCOECHEA ARRIEN, A., JUARISTI LINACERO, J., MORO DEORDAL, I. 2011. «Las formas de propiedad de los seles en Bizkaia». *Lurralde* 34: 109-149.
- GOGEASCOECHEA ARRIEN, A. 2012. «La Colegiata de Cenarruza. Gestión y uso de sus seles (siglos XIV al XIX)». *Lurralde* 35: 31-52.
- LARATZU TALDEA. 1998. «Behinola basakortak, gaurregunean kortabasoak. Dima (Bizkaia). *Kobie (serie Antropología Cultural)*, VIII, 1997/1998:83-95.
- MORAZA, A., MUJIKA, J. 2005. «Establecimientos de habitación al aire libre. Los fondos de cabaña de morfología tumular: características, proceso de formación y cronología». *Veleia* 22:77-111.
- MUJIKA ALUSTIZA, J.A. 2008. «Sierra de Aralar». *Arkeoikuska* 2007: 387-390.
- MUJIKA ALUSTIZA, J.A. 2009. «Sierra de Aralar». *Arkeoikuska* 2008: 430-436.
- REMENTERIA ARRUZA, D., QUINTANA PEÑA, R. 2020. *Los seles de Busturialdea-Urdaibai. Paisaje, cultura y etnografía*. (<https://www.urdaibai.org/eu/etnografia/seles.pdf>).
- SAN JOSÉ SANTAMARTA, S. 1999. «El sel de Altzusta (Urnietia)». *Arkeoikuska* 1998: 178-181.
- UGARTE, F.M. 1976. «Los seles en el Valle de Oñate». *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* 3-4: 447-507.
- VILLARREAL DE BÉRRIZ, P.B. 1736. *Máquinas hydraulicas de molinos, y herrerías y gobierno de los Arboles, y Montes de Vizcaya*. Madrid: Antonio Marín.
- ZALDUA, L.M. 2006. *Saroiak eta Kortak. Mendialdeko antzinako gizartearen oinordeak*. Urnietia: Luis Mari Zaldúa Etxabe.
- ZALDUA, L.M., ALBERDI, J., ARRUABARRENA, J.M., MUJIKA ALUSTIZA, J.A. 2014. «Lizundia». *Arkeoikuska* 2014: 331-333.

Lan honetan aipatutako artxiboko dokumentazioa

AYERBE IRIBAR, M.R. 1995, Documentación medieval del archivo municipal de Legazpia (1290-1495). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.

AYERBE IRIBAR, M.R., ETXEZARRAGA GABILONDO, J. 1999. Archivo Municipal de Elgoibar (1346-1520). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.

ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. Y SARRIEGUI, M.J. 1986. Fuentes documentales medievales del País Vasco. La Colegiata de Santa María de Cenarruza 1353-1515. Donostia: Euskolkaskuntza.

GOICOLEA JULIÁN, F.J. 1998. Archivo Municipal de Salvatierra Agurain. T.II (1401-1450). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.

GOÑI GAZTAMBIDE, J. 1997. Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona 829-1243. Pamplona: Gobierno de Navarra.

HERRERO LICEAGA, V.J., FERNÁNDEZ MARTÍNEZ, M. 2011. Documentación medieval del Archivo Municipal de Hernani (1379-1537). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.

POZUELO RODRÍGUEZ, F. 2010. Archivo Municipal de Salvatierra - Agurain. Tomo IV (1501-1521). Apéndice 1259-1469. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.

ARCHIVO HISTÓRICO FORAL DE BIZKAIA, GORTAZAR 2470/003.

“ZUREA ETA DENONA”

EUSKAL KULTURA ONDAREAREN ZENTROAREN argitalpena da:

1. **HAITZULO ARTIFIZIALAK**
Erlijiozkotasun-Guneak Araban
2. **DEFENTSARAKO ARKITEKTURA**
Euskal Herriko Gazteluak eta Dorre Gotorrak
3. **ARKITEKTURA ERLIJIOSOA**
Euskal Herriko Ermitak, Elizak eta Katedralak
4. **ITSASOARI SO**
Euskal Herriko Talaiak eta Seiner-postuak
5. **HAITZULOETAKO ARTE PALEOLITIKOA**
EUSKAL HERRIAN
6. **ELEFANTEAK, ERRINOZEROAK ETA LEHOIAK**
EUSKAL HERRIKO HISTORIAURREKO MAKROUGAZTUNAK
GIZAKIEKIN PARTEKATUTAKO BIZITZA
7. **ETXEKOTZEAREN HASTAPENAK ETA BILAKAERA EUSKAL HERRIAN**
ANIMALIA ETXEKOTUEN EUROPAR IKONOGRAFIA
8. **HEZUR LANDUAK, APAINGARRIAK ETA ARTE HIGIGARRIA**
EUSKAL HERRIKO PALEOLITOKO HISTORIAURREA
9. **SAROTIAK EUSKAL HERRIAN**

